



ARGIA

EAEko hezkuntza negoziaketetako korapiloak

26-33. orriak

#2.771 | 2022 / 03 / 20 | 4,00 €



**Klima aldaketa
geopolitika
bihurturik**

12 | UKRAINAKO GERRA



**"Zinema
kontserbadorea eta
heteropatriarkala da"**

16 | ALBERTINA CARRI



**"Egoitza pribatuek
ratioekin jolasten
dute etekinak
ateratzeko"**

34 | AHOZTAR ZELAIETA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #272
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



EUSKARAFOBIA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
SHU OTERO

Iritziak

- 21 | ANA MENDIA
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | IÑAKI MURUA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | ITZIAR MORENO

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
ISA ÁLVAREZ
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



12 | UKRAINAKO GERRA ETA ENERGIA BERDEETARAKO EUROPAREN DEPENDENTZIA

Jenofa Berhokoirigoinek ondutako Net Hurbilak azaltzen du energiaren ikuspegitik zer duen jokoa Europak Ukrainako gerran. Energia berdeak eta trantsizio ekologikoa gatazka iturri izango dira, orain arte erregai fosilak izan diren moduan: hidrogenoarentzat Ukraina beharrezko du Europak, eta energia berdea ekoizteko behar diren metalentzat, Errusia.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ALBERTINA CARRI

“Kamera ere idazketa-modu bat da”

Danele Sarriugarte

26 | HEZKUNTZA

Hezkuntza legeak askatu beharreko lau korapilo eta erdi

Mikel Garcia

34 | GIZARTEA | AHOZTAR ZELAIETA

“Zaharren egoitzetako enpresariak anonimotasuna eta inpunitatea dauzkate”

Leire Artola

38 | EUSKARA | LANDER IRURETAGOiena

“Euskalkulagailuaren bitartez ikasleak klik eginez ulertzen du euskal aditza”

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA | DIANE DI PRIMA

Otsemearen haginkada

Julen Azpitarte

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Epika

2,6 milioi ukrainarrek gerratik ihes egin dute azken hilabeteen, NBERen arabera. Gehienak emakumeak eta haurrak. 18 eta 60 urte bitarteko gizonak haien "herriaren alde" borrokatzera behartuta daude, Zelenski presidenteak hala aginduta gerra hasi eta berehala. Norbera eta gertukoak zaintzeaz gain, beste gizakirik hil nahi ez duen jendea bakarrik dago. Bere ekintzak justifikatzeko banderarik gabe, hiru eta bost urte arteko espetxe zigorraren

mehatxupean. Gatazka eta logika militarista elikatzeari uko egitea, Ukrainan zein Errusian, oso "garestia" izan daiteke. Besteak hiltzera herrialdean "geratzen diren" gizonen kemena eta haien emakume eta umeen mina goraiatzeko dituzte albiste-giek. Baina, non du epika, nahi ala nahi ez, maite dituzunak utzi eta heriotzaren bila joan behar izateak? Irudian: Ukrainako militar bat semeari agur esaten, haren familia Irpin hiritik (Kieveko aldiriak) ihesi doa.





“Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpaina martxan du Errigorak

AXIER LOPEZ

Martxoaren 10etik 30era bitarte egingo dute Errigoren kanpaina berria. Joan den astean aurkeztu dute Iruñeko Geltokian ekimeneko kideek, Bardea olio-errotako Kiko Fernandezek eta Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko lehendakari Mirian Otxotorenak. Emeki-eme ki, Nafarroako baratzea aldatzen ari direla azpimarratu dute.

Errigoren *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina berriaren bitartez kontsumitzeko erak aldatzeko bide bat proposatu nahi dute. Martxoaren 10etik 30era Agerreko (Nafarroa hegoalde eta erdialdeko) oliba-olio birjina estra eta kontserba, arroz, pasta eta lekale-sortak eskuragai jarri dituzte, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

Azken urteetan Errigorekin bat egin duten milaka herritarrei esker, Nafarroako baratzean "pauso sendoak" ematen ari direla azpimarratu dute, bestelako ekoizpen eta banaketa-ereduak ohiko bihurtzeko bidean: "Bestelako ereduentzat lur-eremu berriak irabazi, kanpotik ekartzen

genituen produktuen ekoizpena gu-rean berreskuratzen lagundu, hainbat ekoizleri ekologikora trantsizioa egiteko bultzada eta babes eman eta euskarari olio-errotak eta kontserba-etxeetako ateak zabaldu dizkiogu".

Kanpaina urtean behin egingen da eta, beraz, ideia da eskaera handiak egitea: urtean behin, urte guztirako. Banaketa apirilaren azken astean eta maiatzaren lehen hamabostaldian izango da eta 200 bat herritan daude banaketa-guneak.

“Hainbat ekoizleri ekologikora trantsizioa egiteko bultzada eta babes eman diogu, besteak beste”

Errigora auzolanean antolatzen dela gogorarazi dute, herriz herri informazioa zabaltzen, eskaerak bideratzen eta produktuak biltegitatu eta banatzen ari direnen lan boluntarioari esker. ●

Iratxe Sorzabal Frantziara eramane dute berriz

ERREDAKZIOA

Réauko (Frantzia) espetxean zegoen Iratxe Sorzabal euskal preso politikoa, epai zezaten urtarilean aldi baterako Espainiaratu aurretik. Etxeratek jakinarazi duenez hara eramane dute berriz ere.

Otsailaren 7an eta 8an egin zuten Espainiako Auzitegi Nazionalen Iratxe Sorzabalen aurkako epaiketa. Horretarako Réauko espetxetik Espainiara eramane behar izan zuten. Otsailaren 22an eman zuten epaia, 24 urteko espetxe zigorra ezarri zioten, Sorzabalek jasandako eta epaiketan kontatutako torturak zalantzan jarritz.

Mardilgo Estremerako espetxetik eramane dute Paris inguruko Réau espetxera, hegaldi komertzial batean, Etixeratek adierazi duenez. Frantziako Estatuan ezarritako zigorra amaitu bitartean egongo da bertan, udara bitartean. Espainiako Estatuan ezarritako zigorra bete beharko du ondoren.

2015ean David Plarekin batera Baigorri atxilotu zutenetik dago preso Sorzabal. Orduan, 2001ean Hernanin Guardia Zibilak atxilotu zuenean pairatutako torturengatik Istanbulgo Protokoloa aplikatzeko eskatu zuten.

Mediku aditu batek ebatzi zuen tortura salaketek "sinesgarritasun osoa" zutela, eta trauma osteko estresa atzeman zion presoari. 2020ko abenduan Parisko Dei Auzitegiak bertan behera utzi zuen Sorzabalen aurkako euroagindu bat, prokuradoreak sinesgarritasuna eman zielako tortura testigantzei. Hirugarrenez eskatu ostean, baina, haren aurka Auzitegi Nazionalak jarritako euroagindu bat onartu zuen Frantziak. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Alderantziz irakurri



ARITZ GALARRAGA

Paül Valéryren hiriak izan baziren Marseilla, Niza, Genova, Rafael Chirbesenak izan ziren Istanbul, Venezia, Erroma, Alexandria, Kreta, noski Valentzia –“nonbaitekoa izateko oroimina”–. Mediterraneo bueltako hiriak guztiak, bere artikuluetako protagonista bilakatu zituenak. Ez alferrik, *Sobremesa* aldizkari gastronomikoan lan egin zuen Chirbesek hamabost urtez, eta denborarekin leku askotara iritsi arren, “inpresioa daukat bidaia guztiek balio izan didatela jatorrizko bidaia hobeki irakurtzeko”. Horri buruz ari da *Mediterráneos* liburua.

Baina, Mediterraneo buelta bakarrik ez, beste paraje batzuetara ere, Alpujarra, Viena, Laponia, eraman zuen lanak. Baita, nola ez, gastronomiaz ari baikara, Euskal Herrira ere. Erreportaje batean Arzak bisitatzen du –“askorentzat, jabetxe hori zapaltzea, kapritxo bat baino, helburu bat bilakatu da”–, eta jasotzen ditu errezeta batzuk, abakando entsalada epela, ozpin-olio berotan erretako begiandia, gazta fresko tarta ahabiekin. Beste erreportaje batean, perretxiko bila abiatzen da, Gipuzkoa barnealdera, leku zehatzik aipatu gabe –lastima–: “Beasainen, gauak beste lekuetan baino pixka bat gehiago irauten du; zalan-tzarik gabe, Errezilen baino gehiago, non lanbroak ez duen galdu egunsentiaren hatz arrosakarek laztanduta altxatzeko ohitura, Homerok esan zuen bezala –nik baino askoz hobeki esan ere–”.

Bidaia oro barne bidaia dela esan bazuen inork, Chirbesek izan zuen horren berri: “Venezia doan bidaia bere barnean izan uste duen horrekin elkartera joaten da, eta, horregatik, hiri horretan, inork hatz erakusleaz San Markoseko zaldiak seinalatzen dituenean, halabeharrez, alderantziz irakurri behar da bere keinua: barruan duen eta besteek deskubritzen jakin ez duten paisaia seinalatzen ari da”. Chirbesek euskaldunoi buruz idatzi zuen, beraz, baina, alderantziz irakurriko bagenitu idatziok, auskalo zer esango liguketean Chirbesez beraz. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Ertzaintza

Salatu dute hurbiletik egin zuela tiro Ertzaintzak Real-Alaves partida aurreko istiluetan. Joan den igande arratsaldean, Realaren eta Alavesen arteko derbia hasi aurretik gertatu ziren istiluak, Anoeta estadioaren kanpoaldean.

Langile borroka

Garaipen “historikoa” ospatu dute garbitzaileek. EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi du IMQ enpresak legeari iruzur eginez eta eskubide-abusuarekin kaleratu zituela bertako garbitzaileak urtarriean, eta baldintza berberetan berriz ere onartzea kondenatu du IMQ.

UPNren krisia

Sergio Sayas eta Carlos García Adanero plataforma politikoa berria aurkeztu dute Iruñean. Dagoeneko badu 631 herritarren sostengua, UPNko diputatu ohiek azaldu dutenez. Modu honetan argi ikusarazi da UPNren baitan sortu den zatiketa.

Azken geltokia



ULA IRURETAGOIENA

2008ko krisialdian, hiriaren pentsa-lari aurreratu eta ezkertiarren artean lelo hau zabaldu zen: hiriaren etorkizuna auzoak dira, hiria barnera begira jarri behar dugu. Eraikuntza sektoreak ordura arte bizi izan zuen frene-siaren aurrean, non auzo berriak mugarik gabe marraztu eta eraikitzen ziren abiada azkarrean, ahaztutako hiriaren beste lekuak birgaitu eta berregiteko eskaera egin zen. Krisialdiak eraikitzaile eta arkitektura bulego asko porrotera eraman zituen, eta horrekin batera, jabe-kuntza argi bat ekarri zuen arkitektura diziplinari: eraikin eta auzo berriak sortzearen garai eroa betiko agortuta zegoela –eta eskerrak–. Berregokitze ariketak zentzuzko eraikuntza baten etorreraren ataria markatu zuen, eraikitzaileen irabazpide neurtuago batekin batera. Zaharberritze urbanoaren apuraturako biraketa orduantxe eman zen.

Hiria barnera begira eta eraikita dagoen parkea biziberritzeko bidean jartzeak zenbait auzoren zaharberritze plana idaztea ekarri bazuen ere, hirien zentroetarako goxoki baten prestaketa izan da batez ere: turismoari begirako ustiaketa konstruktiboa. Eraikin berriak eraikitzeari mugak jarri zaizkio zaharberritzearen onurarako, baina formulak huts egin du bere helburuan, bertako eraikuntzetan pentsatu delako baina hiriaren beste okupatzaileei begira, berta-koak kanporatuz.

Turismoaren fenomeno oraindik bizirik dagoen garai hauetan, hirietako albiste nagusiak barnealdean jarraitzen dute, hiriaren “jamoia” beste norabide bat hartuta: trenbideak eta tren geltokiak. Trenbidea hiri askotako banatzaileraz azpiegitura da eta hiriko lur-zati bat okupatzen du; Durango, Deba, Zarautz, Gasteiz, Bilbo, Donostia eta abar luze bat kasu. Trenbidearen lurrazpiratzeek libre utziko dituzten eremuak etorkizuneko hirien operazio urbanistiko sonatuenak izango dira, hiriak barnera begira jartzearen aroaren azken urre-leku bilakatuta, beste berri bat aurkitu arte. ●



“Statu Francese assassinu”

 PERU IPARRAGIRRE

Mugigaitza zirudiena mugitu da, Korsika berriz ere nazioarteko prentsan ageri da, baita Frantziako diskurtso publikoaren zati batean ere, ez dago gertatzen ari dena isiltzerik edo saihesterik. Martxoaren 2an Arlesko (Okzitania) espetxean biziarteko kartzela zigorra betetzen ari zen Yvan Colonna preso politiko korsikarrari eraso egin zion preso jihadistak batek. Ia hamar minutuz jipoitu zuen, itotzen saiatuz, eta hil ustean utzi zuen. Koman dago geroztik, hil ala bizi.

Gertatutakoa ekiditeko Frantziako Estatuak hartutako neurri faltari –gerta zitekeela jakina baitzen– eta gertatu ostean izandako pasibotasunari haserre bizian erantzun dio Korsikako mugimendu independentistak, ikasleengandik hasi eta Korsikako elkargoko eta Korsikako Asanbladako kargudunetarik. Colonnak jasandako erasoak mahai gainean jarri du, berriz ere, Frantziako Estatuak preso politikoei duen espetxe politikaren nolakotasuna. Euskal preso politikoei bezala, korsikarrekin ere kostata, mantso eta berandu ari da gizarte zibileko hainbat zati eta gero eta hautetsi gehiago galdegiten ari diren pausoak ematen.

Korsikako hiri eta herrietako kaleetan haserre nabari da azken bi asteotan eta ia egunero elkartu da jendea protestetan, ia gauero izan dira istiluak, bi igandez jarraian manifestazio jendetsuak egin dituzte Cortin eta Bastian hurrenez hurren, eta Ajaccion ere jende andana bildu da mobilizazioetan. Ikasleek kolegio eta lizeoak blokeatu dituzte, gazteek prefeturen aurka molotov koktelak eta harriak bota, protestarien aurka egiten zuten polizia aurre egin... Goiburu nagusia izan dute protestek: “Statu Francese assassinu”, ez du itzulpenik behar.

Istiluak hasi direnetik, DPS edo “bereziki zaindu beharreko preso” estatusa kendu diete Colonnari eta berarekin batera kondenatutako Alain Ferrandi eta Pierre Alessandri preso politikoei, eta horrekin Borgoko (Korsika) espetxera lekualdatzeko aukera zabaldu, aspalditik blokeatutako negoziatioetan mintzagai izan den eskaria. Azken egunetako protestetako aldarriak puskaz harago doaz, baina. Martxoaren 12an Bastian batu da ia mugimendu independentista osoa, hiru auziren bueltan: Colonnarentzat egia eta justizia, abertzaleentzat askatasuna eta korsikar herriaren aitortza. Ikusteke dago egoerak nolako garapena izango duen. ●

15.000

la 15.000 lagun atxilotu dituzte Errusian hiru astean, gudaren aurkako manifestazioetan. Joan den igandean adibidez, 850 pertsona atxilotu zituzten Errusiako 37 hiritan, OVD-Info erakunde independentearen kontaketa arabera.

81

pertsona exekutatu dituzte egun bakarrean Saudi Arabian. Hainbat deliturengatik kondenatutako presoak ziren. Azkenekoz, 2016an gertatu zen exekuzio masiboa Saudi Arabian. Orduko hartan 47 pertsona hil zituzten.

%19

baino ez dira emakumeak EAEko enpresa pribatuen administrazio-kontseiluetan eta zuzendaritza-karguetan. Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen azterketako datuak dira.

“Musukoa kentzeak lotsa ematen dit”

TV3n galdekatu duten irudiko neskaren hitzak ez dira fenomeno isolatua. Gero eta eremu gehiagotan musukoa kentzeko aukera ematen ari zaizkigunean, hainbat nerabe eta gaztek ez du musukoa kendu nahi, norbere konplexuak, segurtasun-gabeziak eta autoestimu baxua ezkutatzeko aproposa baita maskara, kanon idealizatuen garaiotan.



“BIDE SEGURUEK EZ DITUZTE PERTSONAK HILTZEN, BAI, ALDIZ, KONTROL ARRAZISTEK”

IRUNGO HARRERA SAREA

Martxoaren 12an, Bidasoa ibaia zeharkatzen saiatu ziren hiru migratzaile. Haietako bik Biriatura heldzea lortu zuten, baina hirugarrena desagertu egin zen.

2022-03-13

“Nafarroako Euskararen dekretuaren zirriborroak aurrera eginez gero, ia ezinezkoa izanen da herritarrok zerbitzuak euskaraz jasotzea”



EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

Nafarroako Gobernuak administrazio publikoko lanpostuetan hizkuntza irizpideak zehazteko egindako dekretuaren zirriborroa aldatzea eskatu eta “nafar guztien eskubideak kontuan hartzeko” kanpaina abiatu dute.

2022-03-10

TEKNOLOGIA

Teknologiaren agintaritza



DIANA FRANCO

Egiten dudana dela-eta, pertsona askorekin hitz egiten dut teknologiaren eta digitalizazioaren inguruan. Orain dela gutxi guraso batekin aritu nintzen teknologiaren agintaritzaren inguruan. Guraso horrek ez du batere gogoko teknologia, eta teknologiaz hitz egitea ere gorroto du. Ez du ondo ulertzen, eta ez du ulertzeko gogorik ere. Oso arduratuta dago ordea bere haurrak, institutuan hasi berria, beharrezkoak dituen gailuak izan ditzan, tartean mugikorra, haurra isolatuta geratu ez dadin. Baina amorrarazi egiten du teknologiaz ikasi beharrik, bere haurra laguntzeko bada ere. Horregatik, oso eskertuta dago haurraren mugikorrarekin eta sistemarekin, lana egiten diotelako, ez duelako erabaki askorik hartu beharrik, ezta bere haurrarekin eztabaidatu beharrik ere, "mugikorrak" erabakitzen baitu.

Android sistema eragilea duen mugikorra erosi dio, eta erabili ahal izateko Android sistemak eskatu dizkion gauza guztiak egin ditu: haurrarentzat e-mail bat sortu eta haurra adin txikikoa dela adierazi duenez, gurasoaren e-maila eta telefonoa ere eman dizkio sistemari. Horrekin, mugikorra funtzionatzen hasi da. Eta ez funtzionatzen soilik, telefonoak erabakitzen du haurrak zer ezin duen ikusi eta noiz piztu eta noiz itzali behar den, guztia haurraren onurarako.

Gurasoari esan nion deigarria egiten zitzaidala teknologia hainbeste gorrotatzen duen pertsona batek bere haurraren kiko duen agintaritza galtzen uztea teknologiaren mesedetan. Ez da erraza eraldaketa digital hau gure bizitzetan izaten ari den eragina bere osotasunean kudeatzea, nahikoa bagenuen jada kudeatzeko... baina ez ditzagun galdu gauza txiki horiek: noiz piztu mugikorra, noiz itzali, zer ikusi eta zer ez gure seme-alabekin adostu beharko genuke, agintaritza hori teknologia baten eskutik utzi beharrean. Irizpideak gurea izan beharko luke, zeren irizpide onena ez bada ere, ikasteko bide bat da. Gure artean eztabidak txikitzeko aitzakiarekin teknologiari gure bizitzan agintaritza emateak mesede baino kalte egiten digula uste dut. ●

TEKNOLOGIA



TXILEKO PRESIDENTETZA

Aldaketa eta ausardia garaia

AXIER LOPEZ

Ostiraletik, Txileko gobernu berria du. 35 urteko Gabriel Boric Font buru izango du, errepublikako 212 urteetan izandako agintaririk gazteena. Boric boterera heldu da alderdi komunistaren eta ezkerreko beste alderdi batzuen aliantza bati esker. Baina Kongresuan eta Senatuan gehiengoak bilatzeari begira, ohiko zentro-ezkerreko alderdien babesa lotu behar izan du; 24 urtez (1990-2010 eta 2014-2018) Txileko gizartea gobernatu zuten horiekin, metaketa kapitalistari aurre egin ezezik, eredu neoliberalen sakondu zuten horiekin.

Nicolas Grau Ekonomia ministro berriak adierazi duenez, "gure programa munduko beste leku batzuetako programekin alderatuz gero, gurea sozialdemokratatzat jo daiteke nagusiki". Baina kasu, ezin ditugu alderatu Abya Yalakoa eta gure inguruan sozialdemokraziarekin lotuta dagoena. Esate baterako, Boric presidentek uztailen esan zuen "Txile neoliberalismoaren sorlekua izan baldin bazen, haren hilobia ere izango da". Hitz horiek zientzia fikzioa dira "sozialdemokraziaren" izenean mintzo diren Europako alderdi askorentzat.

Hugo Guzman kazetari txiletarrak azpimarratu bezala, Boric buru duen hauteskunde-programak ondorengo aldaketak jaso ditu: pentsioen sistema pribatu transnazonala eta monopolikoa desartikulatzea, mineralen (litioa eta kobrea) ustiapenaren gaineko subiranotasun-mekanismoak indartzea, egungo eskema pribatizatuaz harago bestelako osasun-sistema unibertsal

bat sortzea, lan-berdinasunean aurrea egitea soldatapeko langileei eskubide gehiago emanez, gizartean ikuspegi feminista indartzea eta zerga-erreforma sakona egitea, besteak beste.

Gobernuaren kudeaketan beste faktore bat izango da funtsezkoa: aurtengo azken hiruhilekoan konstituzio berriaren edukia onartu beharko dute txiletarrek plebiszitu bidez. Aurten bertan, jatorrizko herrien garapena legeaz aitortuko duen estatu plurinazional bihurtu liteke Txile, esaterako.

Konstituzio berriak ateak irekiko dizkio erregimen zaharrean eraldaketa sakonak egiteko aukerari. Horretarako, borondate politikoa eta oso indartsua den sektore ultrakontserbadorearekin lehiatzeko prestutasuna beharko dira. Momentuz, enpresarien buruzagien jarrera gero eta oldarkorragoa da konstituzioa idazten ari den Konbentzioaren aurka, "benetako Txiletik" aldentzen ari direla diote.

Txile prozesu eratzaile betean murgilduta dago. Eta, ez dezagun ahaztu, 2019ko herri-matxinadari lotutako milaka barrikadek eta proposamenek sustatu dute prozesua. Kaletik, borroka eta antolakuntzaren bitartez, Txileko mapa politikoa, sozial eta instituzional atzerakoia aldatzea lortu dute. Gizarte eta herri mugimenduen protagonismoak bizi-bizirik dirau, eta herri botereak botere instituzionalarekin izango duen harremanak baldintzatuko ditu hurrengo lau urteak. Sintonia lortuz gero, Txileko aldaketa garaia interesgarri hau, zinez, sakona izan daiteke. ●

Argiaren prezioa 2021 eta 2022an Espainiako Estatuan

Azken datu eguneratua: martxoaren 8

€/MWh (Unitateak)



ITURRIA: OMIE, www.epdata.es

Politika

Ipar Euskal Herriko hainbat eskualdetako hogeitaz gazte bildu ditu Xuti Gazte! dinamikaren aurkezpenak, Uztaritzen. "Gazte ezkertiar, abertzale eta feministek" osatzen dute, "mugimendu abertzalearen lekukoa hartzea" xede: "Gazte borrokari bultzada bat emateko garaia da".

Langile borroka

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ondorioztatu du Gipuzkoako Aldundiak lau teknikari ertain diskriminatu zituela haurdun egoteagatik. Errenta aitorenaren kanpainarako lanpostua esleitu zitzaion, baina Aldundiak baztertu zituen haurdun egonik arrisku egoeran zeudela argudiatuta.



TRANTSIZIO EKOLOGIKOA GEOPOLITIKOA DELA ERAKUSTEN DIGU UKRAINAKO GERRAK

Petrolio ala gas, ohituak gara baliabide natural horiek kausitzea gatazken osagaien artean. Europak Errusiarekiko daukan energia dependentziaz anitz hitz egin da azken egunetan. Baina horrez gain, *Green Deal* edo Itun Berdearen gauzapenerako, nahi edo ez, Ukraina zein Errusiarekin harremanak beharrezkoak ditu Europak: hidrogenoarentzat Ukrainarekin eta trantsizio ekologikorako makinerietan kausitu metal eta mineralentzat, berriz, Errusiarekin.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Beste behin ikusten ari gara baliabide naturalak kontuan hartu beharrezkoak ditugula herrien arteko gataztak aztertzerakoan. Horren erakusle dugu otsailaren 24az geroztik Errusiaren tropei aurre egiten dabilen Ukraina. Europar Batasunarekin eta Errusiarekin daukan harremanei begiratzeko orduan, kontuan hartu beharrezko osagaia dugu energiaren arloa –izan petrolio, gasa, hidrogenoa, berriztagarria zein nuklearra–. 2770. alean argitaraturiko *Reporterre* komunikabidearen zuzendari Hervé Kempfen “Ohar ekologistak Ukrainako gerraz” artikulua ontsa azaltzen digu nola daukan Europak Errusia “bazkide konplikatu baina nahitaezkoa”, energiaren arloan daukan dependentziagatik.

Klima larrialdiaren testuinguruak bultzatu trantsizio fasea ere dugu kontuan hartu beharrezkoa eta ezin uka geroa geopolitika eta klimaren arteko lotura azkartuz joanen zaigula. Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrak demagun, zalantzan jartzen du Europar Batasunak 2019an marrazturiko *Green Deal* edo Itun Berdearen egingarritasuna –eta 2050erako helburutzat jarritako karbono neutraltasuna–.

Vladimir Putinek Donetskeko eta Luhanskeko herri errepublikaren independentzia aitortzeagatik jasotako lehen zigorren artean izan zen Nord Stream 2 gasbidearen izoztearena. Errusia eta Alemania arteko 1.230 kilometroko gasbidea dugu NS2, Errusiaren gas esportazioak bikoizteko bideratua; irailean bukaturikoa, baina, azken tramiteak di-

rela eta oraindik martxan jarri gabekoa. NS2 izoztu badute ere, norabide bereetik doan Nord Stream 1-ak segitzen du irekita –honek ere 55.000 milioi metro kubo gas garraiatzen ditu urtero–. Hots, Errusiak ere baluke hobia itxiz Europar Batasuna zigortzeko bidea, Errusiako gasarekiko dependentzia handia daukalako: inportaturiko gasaren %43 Errusiatik du eta 2019an gasbide ezberdinei esker 199.000 milioi metro kubo esportatu zizkion Europari Gazprom errusiar konpainiak. Baina gerra garaian ere ez direnez beti nahi diren eraso guztiak bideratzen, erreportaje hau idazterako unean halako erabakirik ez du hartua Moskuk. Europak NS1 hetsi ezin duen gisara, Errusiari ere zaila zaio: petrolio eta gasaren diru-sarrerak aurrekontu federalaren %40 dira eta Europarako



HIDROGENO BERDE EKOIZLE

Europar Batasunak partaide nagusi gisa kokaturik du Ukraina, trantsiziorako beharrezkotzat daukan hidrogeno berdea ekoizteko.

esportazioen ia erdia dira gasa eta petrolioarenak.

Oroit gara nola Errusiak “garaipen” bezala kokatu zuen NS2-ren obren bukaera. Ukrainak “proiektu politiko errusiar honen kontra borrokatzen segituko” zuela ihardetsi zuen berehala. AEBak aliatu zituen Kievek gatazka ekonomiko horretan, eta Donald Trumpek zigorrak bideraturik zituen eraikuntzan zebiltzan enpresen aurka –NS2 abiarazteak AEBen esportazioak ere ttipituko lituzkeelako–. Joe Biden presidente berriak, ordea, akordioa adostu zuen Alemaniarekin, Ukraina eta Europa ekialdeko herrietako kexuak baretzeko berme batzuk adosturik.

UKRAINA HIDROGENO ITURRI NAHI LUKE EUROPAR BATASUNAK
Akordio horri begiratzeak merezi du ulertzeko klima larrialdia eta trantsizio ekologikoa geopolitikoak –eta be-

2030erako 2x40 GW hidrogeno berde lortzeko helburua du Europak – 40 GW Europatik eta beste 40 GW Ukraina eta Afrika iparraldetik inportatuz –

raz gatazka iturri potentzial- bihurtzen ari zaizkigula. *US-Germany Climate and Energy Partnership* [Klima eta energiari buruzko AEB-Alemania partaidetza] izena jarri zioten iazko uztailaren 15ean izenpetu akordioari. Ez zituen erabat asebate Ukrainako eta Europa ekialdeko herriak eta elkarriketa eza deito-

ratu zuten: “Aldebiko negoziaketetan AEBek eta Alemaniak beren interesei dagozkien arazo guztiak konpon ditzakete. Baina beste nazio batzuen interesak direnean, ezer ez dezakegu erabaki” Ukrainako presidente Volodimir Zelenskiren aholkulariaren hitzetan.

Le Grand Continent komunikabidearen *Nord Stream 2, la méthode Biden plus productive que celle de Trump* (“Nord Stream 2, Bidenen metodoa, Trumpena baino emankorragoa”) artikulua interesgarria da nondik norakoen ulertzeko. Partaidetza horri dagokionez, *Green Fund* edo Fondo Berdea sortzeko konpromisoa hartu zuen Alemaniak, Ukrainako “energia-trantsizioa, energia-eraginkortasuna eta energia-segurtasuna” sostengatzeko. Gutxienez 1.000 milioi dolar dituzte bideratzekoak, kapital publiko eta pribatuak uztartuz –150 milioi euroko hasierako dohaintza egiteko konpro-

misoa hartu zuen Alemaniak-.

“Hidrogenoa Ukrainaren sektore giltzarrietako bat da, hidrogeno berdea ekoizteko potentzial handia duelako, eta horrek aukera handia ematen dio Europar Batasunari, hidrogenoa inportatu beharko baitu. Hidrogeno berdea ekoitzi eta esportatzeko aukera eman- go lioke Ukrainari bere gasbide-sare garrantzitsuen erabilera berritzeko; Errusiak bere gas naturaletik sor leza- keen hidrogeno urdina baino ekologi- koagoa eta beraz erakargarriagoa litza- tekeen hidrogenoa eskainiz”, irakurri dezakegu artikuluan.

Argi da bere interesei segi ari dela Europa: 2050 urterako finkatua daukan karbono neutraltasuna lortzeko helbu- rua erraztuko lioke hidrogeno berdeak. Eta nola ez, Errusiako gas eta petrolio- arekiko dependentzia ttipitzeko auke- ra ere litzateke. 2030erako 2x40 GW


Nord Stream 2 gasbidea izoztu badute ere, Nord Stream 1-ek segitzen du irekita: horrek ere 55.000 milioi metro kubo gas garraiatzen ditu urtero


hidrogeno berde lortzeko helburua du Europak –40 GW Europatik eta beste 40 GW Ukraina eta Afrika iparralde- tik inportatuz-. Postura berean dago Kiev ere: “Ukrainak bere klima-politika Europaren Itun Berdearekin lerroka-

tu nahian dabil” zioen Ukrainako pre- sidenteak, 2019ko Climate Ambition Summit edo Klima Anbizioarako Gailu- rraren kari. NS2 abiarazteak ekarriko dizkion diru-galtzeak konpentsatzeko bidea luke gainera – 2.460 milioi euro jaso zituen 2019an, Ukraina zeharkatuz Gazprom errusiar konpainiak ordaindu igarotze gastuei esker-. Ukrainako gas sareak, Eustream eslovakiarrak, NET- 4GAS txekiarrak eta OGE alemaniarrak batu berri dira Ukraina eta Alemania lotuko dituen Central European Hydro- gen Corridor korridorea eraikitzeko.

Hala ere, esportatzeko azpiegitura errazki eskura baldin badute, sekto- rea ia zerotik garatu beharra dauka- te ukrainarrek. Gerrak xehaturiko he- rriak, bestelako lehentasunak ukanen ditu seguruenik ondoko urteetan, hori horrela, Europak jarritako lehentasu- nak zalantzan daude orain.

ERRUSIAKO GASAREKIKO DEPENDENTZIA HEINA





ERRUSIAKO LURRAK, METAL ETA MINERALEZ ABERATS

Klima larrialdiari aurre egiteko marrazturiko Itun Berdea gauzatu ahal izateko hainbat metal eta mineral berezi beharko ditu Europar Batasunak, eta seguru aski horientzat ere Errusiaren mendeko izanen da. Argazkian, Errusiako paladio meategi bat.

TATYANA MAKEYEVA

ERRUSIA BEHARREZKOA, BAITA ENERGIA BERDEENTZAT ERE

Novethic-en Métaux stratégiques: la guerre en Ukraine pourrait freiner la transition écologique de l'Union Européenne ("Metal estrategikoak: Ukrainako gerrak frenatu dezake Europar Batasunaren trantsizio ekologikoa") artikulua kontuan hartu beharreko bigarren elementu bat aipatzen digu: Europar Batasunak marrazturiko tran-

tsizio ekologikoarentzat beharrezko dituen metalez aberats direla Errusiako lurrak. Adibidez, auto elektrikoentzat behar den paladioaren %40 Errusian kausitzen da. Nikelarentzat berdin, Filipinak eta Indonesiaren ondotik hau dugu ekoizle nagusia eta badakigu haize-errota eta baterientzat ezinbestekoa dugula metal hori. Beste informazio bat, Donbassi buruzkoa, 2014an hasitako gerraren osagai ere

izan daitekeena: litio asko bada bertako lurretan eta guztiak dira horri begira: Errusia, Ukraina bera, baita Europar Batasuna ere.

"Klima aldaketak eta gatazkek sustrai bera dute: erregai fosilak". IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeko Svitlana Romanko ukraindarren hitzak dira. Seguru asko, gerora energia berdeak ere kausituko ditugu gatazken oinarrian. ●



NINA MÛR

eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

Albertina Carri

TRABA EGITEAREN ARTEA

“

KAMERA ERE IDAZKETA-MODU BAT DA

”

Bilbo, 2022ko martxoak 1.
Nekatuta baina pozik agertu
da Albertina Carri zinemagile
argentinarra hitzordua eginda
geneukan hotel-atarira. “Egun oso
intentsoak izan dira. Badirudi duela
bi hilabete bizi naizela hemen,
baina ez, iritsi berria naiz eta banoa
berriro”, dio barrez. Bezperan jaso
zuen Zinegoak jaialdiaren
Ohorezko Saria, zine-
zuzendari gisa egindako
ibilbidearen aitortza.
Talaia aproposa azken
bi hamarraldietako
uzta berrikusteko.

 **DANELE SARRIUGARTE**
MOCHALES

 **DANI BLANCO**



Zergatik erabaki zenuen zinema ikastea?

Jakin-mina sentitu dut beti idazketarekiko, eta zinema ikastea erabaki nuen beste formatu batean idazten ikasi nahi nuelako. Hau da, egiaz gidoilaria izan nahi nuen, eta ez zuzendaria. Gero, kamera-talde batean hasi nintzen lanean. Nire teoria da, orain zertxobait solemnea iruditzen zaidan arren, une horretan deskubritu nuela idazketa-modu bat dela kamera ere. Baina ni ez nintzen oso zinemazalea, fakultateko beste kide batzuk bezala; nire formazioa lotuago zegoen literaturarekin.

Badira 20 urte pasatxo filmak egiten hasi zinenetik, zer aldatu da denbora horretan?

35 milimetroan grabatzen ikasi nuen nik, eta filmak egiteko garaia iritsi zitzaidanean desagertu egin zen formatua! Beraz, orain, ezertarako balio ez duten gauza mordoa egiten dakit [barreak]. Txantxak alde batera utzita, al daketa teknologikoak izugarriak izan dira, eta ziur naiz narrazio-mota ere aldatu dutela. Gauza bera banaketarekin: plataformak sortu dira, zine-aretoak desagertu, eta errelatoa aldatuz joan da horren guztiaren ostean.

Gaur egun badirudi dena dagoela ikus-entzunezko plataformetan, baina ez da egia. Esate baterako, oso zaila da zure filmak sarean ikustea.

Plataformek, hain zuzen ere, halako ideia bat ezarri dute, dena dagoela bistan; badirudi dena aurki daitekeela eta dena ikus daitekeela. Bada, zinema apur bat zaharragoa ez da aise topatzen. Horregatik dira beharrezkoak zine-jaialdiak, ez soilik iraganeko lanengatik, baita beste zinema bazterrekoago edo independenteago honegatik ere.

Zinegoak jaialdia da horren erakusle garbia.

Gainera, halako jaialdiek zinemaren esperientzia berreskuratzen dute pixka bat, ezta? Filmak ikustera zoaz eta jendearekin hitz egin duzu zinemari buruz; lehen gauza ohikoa zena, alegia. Ikasten hasi nintzenean, fakultatean baino gehiago ikasi nuen jaialdi txikietan. Eztabaida, informazioaren zirkula-

zioa, berotasuna eta pasioa: hori guztia oraindik oso premiazkoa dela uste dut.

Asko borrokatu zara zeure filmak zeuk nahi moduan egin ahal izateko?

Bai, eta prezioa ordaindu dut nolabait ere: nire film askok aurrekontu oso baxuak dauzkate. Giza baliabideekin egin dako filmak dira, baliabide kapitalekin baino gehiago. Baliabide kapitalek exigentzia narratibo batzuk dauzkate, eta ni ez nengoen prest horretarako.

Arteen barruan, zinema oso kontserbadorea dela uste dut, eta heteropatriarkala zer esanik ez. Zinemari kosta egiten zaio errealtatean gertatzen ari diren egoeretara iristea. Musika, antzerkia, performancea eta arte-adierazpen askoz erradikalago horiek askoz lehenago heltzen diete tenperatura sozial jakin batzuei zinemak baino.

Zinema eta heteropatriarkatua aipatu dituzu: zer iruditzen zaizu autorea eta obra bereiztearen kontu hori?

Oso zaila iruditzen zait halako zerbait egitea. Polanskiren zinemarekin hazi nintzen, interesgarria iruditu zitzaidan eta gustuko nuen; gero, jakin nuenean nolako gauzak egin zituen, ezin dut haren obra defendatu. Galdera beste bat litzateke: zer egi-

ten dugu doilortasunarekin gizartean? Ba horren berri ematen dugu, kontatu egiten dugu. Memoriaren parte da, nondik gatozen erakusten du. Baina autorea eta obra bereiztea... ez. Polanskik izandako haurtzaro txar-txarra bereizi ez zuten bezala, gauza ikaragarriak egin zituen, gauza gaitzesgarriak. Gero bakoitzak erabakiko du haren filmak ikusi nahi dituen. Aspaldi da nik ez ditudala ikusten.

Zure lehen eleberria argitaratu zenuen iaz: *Lo que aprendí de las bestias*. Pandemiak zerikusirik izan du horretan?

Mundu guztiak uste du zerikusia duela pandemiarekin, ona! Nahiago nuke liburu bat idazteko gai banintz zortzi hilabeteko itxialdian. Baina ez, aspalditik nenbilen proiektu horrekin. Gero bi film sartu zitzaizkidan tartean [*Cuadreros* eta *Las hijas del fuego*], eta alde batera utzi nuen, harik eta erabaki nuen arte amaituko nuela, onerako edo txarrerako. Pandemian, egia esan, beste liburu batekin aritu naiz: saiakera bat, aurreten kaleratuko da.

Las hijas del fuego (2018) filmari esker ezagutu zintudan nik. Ez omen zen lehen aldia genero pornografikoa landu zenuena: *Barbie también puede estar triste* (2001) film laburrarekin ekin zenion kontuari.

Bai, *Barbie* guztiz pornografikoa zen, baina panpinekin. Jakin-mina nuen ge-



Albertina Carri

BUENOS AIRES, 1973



Zinemagilea. 2000. urtean kaleratu zuen bere lehen film luzea, eta orduz geroztik dozena bat lan egin ditu, era askotakoak. Auzi sozial eta politikoek presentzia handia dute bere lanetan: 4 urte zituela, haren gurasoak desagerrarazi zituen Argentinako azken diktadura militarrek. Kasu hori landu du bi dokumentaletan: *Los rubios* (2003) eta *Cuaterros* (2017). Feminismoak eta sexu-askapenaren borrokak ere garrantzia izan dute bere ibilbidean; horren erakusgarri, bere azken film luzea, *Las hijas del fuego*, zeinak lesbianen eta genero ez-bitarreko pertsonen sexualitatea eta gozamina erakusten baititu, garden eta eder.

neroarekiko, leku nabarmena duelako zinemaren munduan. Gauza bera behin eta berriz errepikatzen ari naizela iruditzen zait, baina esan egingo dut hala ere: munduko zine-matografia guztiak hasi ziren irudi pornografikoekin. Orain nire bilaketa bestelakoa da, jakina, baina duela 20 urte genero pornografikoari erreparatzen hasi nintzenean, halako intriga bat sentitzen nuen genero guztiz didaktiko horrekiko, ahots- eta sexualitate-mota bat bilatzen duena, eta menderakuntza-molde bat dena orobat, zeren pornografian argi ikusten baita irudiek errealitatea sortzen dutela eta menderatu egiten dutela.

Gai polemikoa da mugimendu feministen barruan.

Interes handia egon zen prohibizionismoarekiko. Ni ez naiz debekuaren aldekoa orokorrean, uste dut gure burua erregulatzen ikasi behar dugula.

Donostiako Zinemaldian ikusi nuen *Las hijas del fuego*, zeinak modu esplizitu eta alaian erakusten baitu LGBTQ+ jendearen sexualitate askotarikoa. Film gozagarria izanagatik, deserosotasun handia sortu zuen aretoan.

Bai, oso dibertigarria da film hori areto batean ikustea. Donostian ikusle batzuk atera egin ziren zinematik eta sekulakoak esan zizkiguten. Oso hiri katolikoa da eta publikoak garrantzia handia du jaialdian. Gogoan dut andre bat oso haserre atera zela, esanez ez zietela abisatu pornoa zenik; kasu horretan, antolakuntzari zegokion ardura. Ulertzen dut shocka izan daitekeela film horrekin topo egitea inork abisatu gabe.

Nolanahi ere, arrakasta handi samarra izan du filmak.

Grabatzen ari ginenean gure fantasia zen porno-zinemetan estreinatzea eta han egon zedila modu jarraituan. Ez genuen uste halako biderik egingo zuenik, askoz *underground*-agoa izango zela pentsatzen genuen. Eta hara non *mainstream* bilakatu ginen, kalkulu-istripu batengatik! [barreak]. Tira, ez hainbeste, baina filmak oihartzun handia izan du, zirkulazio oso handia, eta gauza bikaina da, jendeak ikus zezan egin baikenuen.



Bestalde, uste dut garrantzitsua izan zela nire aurreko ibilbidea; gauza garrantzitsua izan zen filmean lan egin zuten neskentzat ere. Pertsona guztiz ezezagun batek egin izan balu film hori, apur bat gehiago zigortu izango zuket. Ni aspalditik ari naiz traba egiten, hogeit urtetik gora.

Sexu-eszena esplizituek gainera, diskurtsoak leku nabarmena du filmean.

Interesgarriak iruditzen zitzaizkidan erotikotasunaren beste dimentsio horiek: hitza, alderdi narratiboa, paisaien gaineko lanketa. Genero pornografikoa deseraikitzekeo ideien harira, gidoian pertsonaia bakoitzak bere gozamen edo bilaketa propioa duen eran, uste nuen bestelako instantziak ere landu behar zirela. Horregatik agertzen da poema bat, adibidez.

Grabaketa-prozesua ez omen zen ohikoa izan.

Barbie egin nuen garaiaz geroztiko fantasia bat zen film bat egitea giza-kiakin, baina iruditzen zitzaidan generoaren beraren akatsa errepikatuko



nuela, hau da, castinga abusuzkoa izango zela ezinbestean, abusuzkoa izango zela emakumeei dei egitea antzeztera etor zitezen eta gauza jakin batzuk egin zitzaten. Zentzu horretan, egin zitekeen unean egin nuen filma: Rocío Castelli ezagutu nuen –antropologo eta aktibista feminista eta lesbiana, castingaren arduraduna– eta filmean parte hartu zuen emakume-talde hori existitzen zen, zeinak konbentzimendu militantearekin etorri baitziren filma egitera. Aktoreak dira denak, baina, batez ere, aktibistak dira, eta beste lan batzuk dauzkate: antropologoak, abokatuak... Jende serioa da, ez ni bezala, nik filmak egiten ditut [barreak].

Edukia eta forma ez ezik, egiteko modua irauli beharra zegoen?

Lehen aipatu dizut espazio guztiz kontserbadorea dela zinema, ba horrek zerikusia du ekoizpen-sistemekin: zinema oso eskematikoa da egiteko moduari dagokionez, eta uste dut egitura horiek haustea konplexuagoa eta zailagoa dela, denbora gehiago behar da. Baina gauzak beste modu batera egin daitezke, horrek dakartzan kostuekin, beti bezala.

Zentzu horretan, *Las hijas del fuego* rako talde bat eta egitura bat sortu genituen, ez soilik castingari dagokionez, baita ekoizpenean eta talde teknikoan ere –baldin eta halakorik badago–, eta beste modu batean lan egin genuen, askoz modu horizontalagoan. Komunitate bat eratu zen, eta uste dut hori nabaritu egiten dela filmean. Narrazioa beste bat da, genero pornografikoaren deseraikuntza bat da benetan, baina, hori kontatu ahal izateko, kameraren atzean beste ekoizpen-modu bat ahalbidetu beharra zegoen.

Oker ez banaiz, udazkenean hasiko zara zure hurrengo filma grabatzen.
Hala diote.

Ez dakit ezer aurreratu dezakezun...

Caigan las rosas blancas deitzen da, eta *Las hijas del fuego* filmeko talde eta aktoreak izango dira hein handi batean.

Road movie bat da hau ere, baina orain Buenos Airesetik São Paulora joango gara. Iparraldera goaz, berora.

Izan ere, *Las Hijas del Fuego*-ren hasieran...

Las Hijas del Fuego munduaren amaieran hasten zen! [barreak]. Niretzat interesgarria zen beste Argentina bat kontatzea, oro har kontatzen ez dena. Badirudi Buenos Aires dela Argentina, eta Buenos Aires oso desberdina da herrialdeko beste toki batzuen aldean.

Film berri hau *Las hijas del fuego*-ren jarraipen modukoa da, baina ez dute batere antzik. Lehen filmean agertu ziren gai batzuetan sakontzeko aukera eman-go digu. Lurralde, paisaia eta gorputzen kontu hori lantzen segituko dugu. Baina ez dut ezer gehiago esango. Agian sinopsiren bat topatuko duzu han edo hemen, neronek ez dut inoiz jakiten zer esaten den.

“

**Polanskiren
zinemarekin hazi nintzen,
interesgarria iruditu zitzaidan
eta gustuko nuen; gero, jakin
nuenean nolako gauzak egin
zituen, ezin dut haren
obra defendatu”**

Filmaren finantzazioari buruzko artikulu bat irakurri nuen nik.

Bai, koprodukzio bat izango da, Brasilekin eta hemengo, Euskal Herriko, ekoiztetxe batekin, Doxa. Alde horretatik, apur bat handiagoa da filma, baina uste dut eusten diola aurrekoaren aldarte libertario eta ospakizuneko horri, eta azken batean horixe da garrantzitsuen, horrantz joan behar dugu, nire ustez.

Aurten saiakera bat argitaratuko duzula aipatu duzu lehen. Zeri buruzkoa da?

Filosofo argentinar batekin batera egindako proiektu bat da: Esther Dfáz du izena eta niri oso pentsalari interesgarria iruditzen zait. Pandemiaren aurretik, gutun-truke bat abiatu genuen, memoriaren gaiari buruz zehazki. Gero, proiektua geratu egin zen, eta berriro ekin genionean galeren gaiari heldu genion.

Elkarrizketa honetan apenas aipatu dugun arren, Argentinako memoria historikoa eta politikoa oso garrantzitsuak izan dira zure lanean. Saiakerak bide horri jarraitzen dio?

Hain justu ere Memoriaren Egunaren harira hasi ginen elkarrizketak. Martxoak 24, egun horretan hasi baitzen Argentinako azken diktadura militarra. Memoria kolektiboa oso garrantzitsua da, eta lan etengabea eta kolektiboa izan behar du. Baina, beste alde batetik, memoria pertsonalak daude, eta nik gero eta argiago daukat eskubidea dugula ahazteko, eta ahanztura beharrezkoa dela bizitzeko, maila pertsonalean behintzat.

Amaitu aurretik, ez dut aipatu gabe utzi nahi Asterisco LGBTIQ+ zinema-jaialdia. 2013an sortu zenuten. Zer moduz doa?



Lehen edizioak zuzendu nituen baina orain Diego Trerotola ari da horretan. Jaialdiak martxan jarraitzen du, estatuen aldetik askoz laguntza gutxiagorekin halere, asko aldatu baita Argentinako panorama politikoa. Martxan dago, eta gauza harrigarria da hori LGBTIQ+ jaialdi batentzat. Poliki-poliki hazten ari da berriro. Jaialdi aldakorra da, Argentinako jaialdi guztiak bezalaxe, herrialde sakonki ezegonkorra da eta. Ikusi

beharko dugu nolako herrialdea gertatzen den orain, pandemiaren ostean eta Errusia-Ukraina gatazkarekin.

Nola ikusten duzu egoera?

Pandemia oso kolpe gogorra izan da Argentinarentzat, bai ekonomikoki bai sozialki, ez dakit nondik aterako duten. Eta, gainera, berotze globala, auzi ekologikoa, sute mordo bat egon da... Zaila ikusten dut. ●



Sustrai
Erakuntza

TXANPONAREN BESTE ALDEA

Kontu zenbakian Laboral Kutxa:

ES15 3035 0162 76 1620031982


BAINA ZER DA HAU?



AURKAKO BORROKAN:

PROIEKTUAK
GUTUN TRUKAK
ANBUEN KINAKO ZINMA
POSIZIOAKO ELKARRIZKETA
GUTUN-TRUKAK
GUTUN-TRUKAK

ERRESSOSTENTZIA EKOLOGIKOKO KUTXA WWW.SUSTRAIERAKUNTZA.ORG



Futbolina

Noiz eta futbolina oso *demodé* zegoela uste nuenean, *coaching* modernoak darabilen erretorika indibidualistaren ikur izan daitekeela deskubritu dut: “Zu. Zu zeu zara zure garaipen nahiz porroten erantzule bakarra. Inork ez dizu sekula ezer eragozten. Zuregatik eta zuretzat” (2022, Instagram). Futbolin-txotxongi-loen antzera, zelaia partekatzen dugu, baina jokalaria bakoitza ezinbestean berea den espazio ukiezinan.

Zenbaitetan pentsatzen dut elkar ez molestatze horretan gehiegi tematzen garela. Adibide bat. Lagunartean esango banu inoiz haurdun egongo banintz etxean erdituko nukeela, baten batek, isilean, zalantzan jarriko luke burutazioa osasuntsua ote den. Baina, segurutik, nire kontua dela ebatziko luke, eta, ozenean, sentitzen dudana hori egiteko esango lidake: “Ardura dadila norbera bere *mobidaz*, propioarekin nahikoa dugu eta” (bide batez, gainera, lagunak bere konbikzioari eutsiko lioke inolako barne-gatazkarik gabe). Bake-bakean denak.

Naturazkoa dirudi barne-gatazkarik gabe bakeari eusteko tentazioa, eta zentzuzkoa deritzot mesfidati eta deseroso agertzea norbere arrazoibidea pitza daitekeela antzematean. Adibideari segika, egia da erditzea ospitalean artatu beharreko jazoera arriskutsua den us-tea hegemonikoa dela. Etxean erditzeko hautuak derrigor eskatzen du oso oinarritzko ditugun ehunka kontzeptu

Ez dago modan
norbere epaia
zalantzan jartzea. Eta
ez da harritzekoa,
ze, berdingabe (eta
ukiezin) egiten gaituen
hori gurtu eta gurtu
jarduten dugu eguna

birdefinitzea. Kolokan jartzen du urteetan eraikitako diskurtsoa. Konbikzioen apokalipsia. Gakoa, ordea, sentitzen dugun ezerosotasun horrekin zer egin erabakitzea da.

Eskolan erakutsi ziguten berdinen arteko harremanaren funtsa dela parean dugun edonor arrazional, arduratsu eta kontziente gisa begiestea: bai ni eta bai zu bagara gure adierazpenak argudiatzeko nahikoa, eta prest gaude iritziz aldatzeko hizketaldiaren bilakaerak horretara behartzen bagaitu. Ulertu genuen besteari erabateko errespetua diogulako sortzen dela eztabaida, hain zuzen ere. Horregatik, agian, aspaldi honetan dezentzera iraingarria egiten zait zenbait solaskideren itxurazko begirunea.

Ez dago modan norbere epaia zalantzan jartzea. Eta ez da harritzekoa, ze, berdingabe (eta ukiezin) egiten gai-



ANA MENDIA
EMAGINA

tuen hori gurtu eta gurtu jarduten dugu eguna. Horrenbeste lan eta gero, noski, koherentea da gure esentzia babestea edozein erasoren aurrean. Hala igarotzen gara elkarren ondotik bata bestea urra ez dezan arreta handiz. Martxa honetan batera biziko gara, nahiz elkarrekin bizi ez. Nor bere baitan bilduta, marmarrean. Futbolinean kirtenari legez kanpo eragin eta jokalaria beren ardatzean jira-bueltaka geratzen direnean bezalaxe. Oparoa datorkigu nartzisismoaren uzta.

Eskerrak bestelako lurrak ereiten dituzten. Lagun batek zera dio: “Gizabanakoa bere aurretiko zein haraindikoak diren hizkuntza, arau, teknologia eta prozesuen eskuetan, hauskorra, finitua eta osatugabea da, lurra(idea)rekin ez ezik, beste izaki bizidun eta ez-bizidunekin txirikordatutako gizaberetxo zaurgarri, dependente, erlazional, iragazkor eta desjabetua”*. Alegia, elkar-urratze hutsa gara.

Batzuetan zalantza egiten dut ez ote garen errespetua nagikeria intelektualarekin nahasten ari. Beharbada zuzena da diotena, eta egungo hiriak ez dira tolerantziaren agertoki, axolagabekeriarena baizik. Hau bai apokalipsia. Dena den, ez luze pentsatu, nire *mobidak* baino ez dira eta. Portzierto, ebidentzia zientifikoak garbi frogatu du umea sutondoan izatea segurua dela. ●

*Mikel Urdangarin Irastorza, *Simone de Beauvoir. Norbanakoa eta burujabetza*, Jakin, 2021.

Alda dezagun galdera behingoz, otoi



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Barkatuko didazue, baina hainbestetan hizpide izan dudan Euskal Hezkuntza Sistemaren gaiarekin natorkizue oraingoan ere, iruditzen zaidalako segitzen dugula eztabaidari behar ez bezala heltzen, modu oker samarrean afera interpretatzen, eta arre-ta behin eta berriz arazoaren periferia-rra desbideratzen.

Hezkuntza sistema propioa sortu nahi dugu, eta noski, bat egiten dut modu batean ala bestean helburu horren alde dabilen borondate oneko jende guztia-rekin, argi gera bedi. Kontua da badi-rudiela gure zapalkuntza egiturazkoari erreparatu gabe egin nahi dugula, eta hor ikusten dut nik arazoa, ezin sine-tsikoa baita oraino ohartuak ez izatea, *de facto* ezinezkoa dela euskal eskola nazionala edukitzea gure mendekotasun erabatekoaren baldintzetan. Zertarako orduan hainbeste tematu horretan? Ez dut ulertzen, benetan.

Akats larria da gure gaitz orokorra-ren sintoma diren arazoak gaitz oro-korrari begiratu gabe konpondu nahi izatea, edo are, gaitz orokorrik ez bale-go eta ez bageneuka bezala ere jokatzu. Zoritxarrez, ez da hezkuntza propioaren aldeko esparruan bakarrik ikusten den akatsa, berdin gertatzen delako euskararen aldeko defentsaren eremuan, adibidez, edo oro har euskal nazioaren zapalkuntzaren aurreko erantzunetan. Baina iruditzen zait ongi ilustratzen duela gure zapalkuntza arazoaren au-rrean euskaldunok hautatu dugun bide



PAULA ESTÉVEZ

okerra, zenbateraino gauden burujabe-tza kuota handixeagoak lortu nahi ho-rretan trabatuta, benetako burujabetza-ren iparrorratza ahaztuta. Hori ikustek sortzen dit nagusiki etsipena, beti kexu gabiltzala, baina beti eskean, garaipen txikiekin baino ez kontent eta ase.

Bai, badakit zer esango duzuen, zer-gatik egin behar ote diogun uko lor dai-teke-en zerbaiti. Bada, zer nahi duzue esatea, ez dut batere argi ikusten posibi-lismoaren arrazoi hori, ez garelako inoiz modu horretan soluzio benetan asegarri batera iritsiko; ahaleginik handiena egi-nik ere, gure esku dagoen indar gehiena pilaturik ere, egiten duguna egiten du-gula ere. Inoiz.

Gainera, hortik deus funtsezkorik lortu dezakegula pentsatzetik urrun, oso argi dut mendekotasuna elikatu eta areagotzearen prezio garestia ordain-tzen dugula hortik jotzen dugun aldi oro. Otapurrak ez zaizkigula dohainik ate-ratzen, hitz gutitan esanda. Herri gisa salba gaitzakeen soluzio bakarraren antolamendurako beharko genukeen energia xahutu egiten dugu, zeregin na-gusi eta bakar beharko lukeen horretatik desbideratzen dugu arre-ta, irtenbide beti eskasetan galtzen ditugu indarra eta denbora, eta okerrago dena, gaitza-

ren benetako sendagarriarekin baino, tiritekin egiten dugu amets.

Lagunok, herri menderatua garel-a, bahitu egin digutela burujabetza, geu-rearen gaineko kontrola eta boterea! Gogora ekarri behar ote dugu oraindik? Badakizuela esango didazue, baina zer nahi duzue esatea, ez du hala ematen. Etsigarria da ikustea nola gure gogoe-ta eta buruhauste politiko guziak dau-den honako galdera infra-estrategikoari erantzutearen xede hutsarekin formula-tuta: zer egin dezakegu herri indepen-denteek (baino ez) dituzten eskubideak edukitzeko, independente izan gabe?

Hemen administratzen den hezkun-tza espainola edo frantsesa da. Euskal Eskola Publikoa deitutakoan, noski, bai-na baita neurri batean Ikastoletan ere. Administrazio berak kudeatzen eta fi-nantzatzten dituelako biak ala biak. Bai, hala da zoritxarrez.

Ikamikak ez baikaramatza inora ere, deitu nazazue funtsezko galderari eran-tzutea beste aukerarik ez dugula ohar-tuko zaretenean: zer egin independente izateko? Edo hezkuntzari lotuago nahi bazenute: zer egin dezakegu euskal he-zitzaileok, independentzia eta estatu propioa berreskuratzeko eginkizunean?

Jarri hitzordua, eta agertuko naiz. ●

Erakargarri edo libre?



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Hiztegian begira aritu naiz eta arra hitzaz hasitako hirurehun hitz inguru aurkitu ditut. Aldiz, hasieran eme hitza –bere horretan– dutenak, he-me-zortzi. Harritu nau, euskaraz generoa markatzen ez denez (noka edo hika ez bada) hainbesteko aldea egoteak. Baina, nire kapritxo txoro bat besterik ez da izan.

Horretan ari naizela, industrian itzain ari omen den gizonezko bati entzun diot emakumezkoak behar dituela industriak. Ez dugula industria jardunean behar besteko arrakastarik izan ahalko, *emekastarik* erakarri ezean produktuziorako.

Handik minutu gutxira, ildo berean doan beste berri bat: “Ingeniaritza ikasketak egiteak, lanerako atea irekitzeaz gain, soldaten arteko arrakala desagertzeko bidean jartzen zaitu”. Entzuna ez ezik, barneko mezua ere izan da nire bizitzan, matrikulazio garaietan bereziki: hala sentitu dut. Industrian lan berari soldata bera jarrita ere, zertarako da soldata? Bizitzeko bitartekoa dugu, noski, eta gure etorkizuna eraikitzeke ezinbestekoa, gainera. Baina zertarako dugu prestigiodun lana eta soldata bikai-

na, egiten dugunak ez bagaitu asetzen? Dirua ala zoriona? Hortxe zagonk koska!

Lanbide Eskola batean aritu naiz urteetan lanean, emakumezko gure ikasketetara ezin erakarrian. Askori ez zion deus esaten guk eskaintzen genionak; beste batzuek zioten ez zutela buzoarekin ibili beharreko lanik nahi, batarekin ibiltzekoa baizik; mordoa zen zer egin argi ez zeukana...

Egun, dena da buzoa eta dena da bata. Baina bata ez dakar bestea, eta soldata arrakalak bereari eusten dio. Ala txikiagoa da soldata denak txikiagoak diren neurrian? Etxetik lan egiteak sekulako abantaila omen dakar eta badakigu gure amek, amen amek eta haien amek zenbat asto lan egin zuten, ez soldata eta ez aseguru. Etorkizuna Glovo-n dator!

Hala ere pozik: txertoak iritsi baitzaizkigu, beste kolore batzuetakoei ez bezala; edo Ukrainan ez gaudelako, zoro batek mundua sutan jarri baitu beste zoro batzuen konplizitatearekin, gerra negozio izaki; bankuek irabazi neurri gabeak izan dituztelako, lehen denon dirua oparitu zitzaien egoera oneratu orduko itzultzekotan. Alzheimerra ere Cajoo, Flink, Dija, Gorillas... di-da dator ala dakarte!? ●

Fikzioaren gramatika VII: adjektiboak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

(Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala. Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala. Fikzioa omen da errealitatea, fikzioa bera ez bezala. A. Alieva)

Bertze hitz batzuk baino lehenago zahartzen omen dira adjektiboak. Bertze solas batzuek baino ibilbide makurragoa egiten omen dute biografietan. Adjektiboak, kalifikatzaileak bereziki, ez omen dira bidaide onak, eta horregatik neurri-neurrian erabiltzeko aholkua eman zizun editore batek aspaldi. Kasu egin zenion. Geroztik, hango

eta hemengo adjektibo andanek zartatu dute zure larrua. Bakandu zure kopeta.

Amaiari esker jakin duzu hizkuntza guztiek ez dutela adjektiborik; aditzen bidez lortzen omen dute funtzio semantiko hori komunitate horietan. Adjektiborik gabeko utopia gramatikal eta komunikatibo batean murgiltzen hasi zara... Posible da, nonbait, interakzio emankorra izatea, gurean, elkarri hain erraz oparitzen dizkiogun etiketa kalifikatzaileetara jo gabe. Iraultza berria.

Maitasuna aditza dela erran zuen Bell Hooksek, ez izen. Are gutiago, adjektibo. ●

Kalera, zertara?



ITZIAR MORENO MARTÍNEZ
EUSKAL PRESO POLITIKOA

Borrokara lotu ginenean, jakin ba-genekien gure ideiak defendatzeak estatuen errepresio beldurgarria pairatzea ekar diezagukeela: tortura, kartzela, deserria... baita heriotza bera ere. Preseski horregatik egin genuen borroka! Gure herri txikitik hasi eta mundu zabalera, botere desoreka eta bidegabekeria gehiegi zegoela sentitzen genuelako eta, halaber, Ama Lurraren, herrien zein pertsonen kontrako zapalkuntza hori bazela ikusten genuelako. Gai honen gainean buru beste aburu badago ere, biolentzia arma politiko gisa zera-biltzen bi estatuen errepresioari aurre egiteko eta, aldi berean, herri askeagoa eta justuagoa eraikitzeke helburuarekin jardun genuen guk; hutsak huts, osoak oso. Ugarik begi txarrez eta anitzek begi onez ikusitako borroka horren ondorioz gaude kartzelan eta, hortaz, gatazka politiko baten eraginez preso gauden euskal (gehi elkartasun iraultzaile miresgarritz gurekin batera bidea egin duten harri bitxi horiek) militante politikoak gara.

Batzuentzat agerikoa eta txalogarria izango da azken baieztapena, polemikoa askorentzat, eskandalagarria, irainga-

Hamaikaren ahotan
dago nola atera
behar garen, zer egin
eta esan behar
(ez) dugun...
Eta guk zer diogu?
Itzalpe urte luzeen
ostean, zertarako
egon nahi dugu guk,
presook, kalean?

rria edota zigorgarria ere beste hainbarentzat. Egia, koloreak edo puzkerrak bezala: bakoitzak berea du gustuko! Kontuak kontu, kartzelan gaude eta, goiz ala berandu, kalera aterako gara. Hamai-karen ahotan dago nola atera behar garen, zer egin eta esan behar (ez) dugun... Eta guk zer diogu? Itzalpe urte luzeen

ostean, zertarako egon nahi dugu guk, presook, kalean?

Ukaezina da, zoritxarrez eta garaipenak garaipen, gure herria eta mundua ez direla heldu amestu agertoki aske eta bidezkoa. Bada, kartzelan ere, urteotan, nola edo hala, borrokan jarraitu dugu: beste presoekin batera, espetxe sistemaren kontra; kideekin, duintasuna zer den ikasten, harrotasunez, maitasunez; gure herrikideekin, betiere independentzia eta askatasunaren alde; geure burutxoekin, egunero, hezten, hazten, norbere kontraesanak gainditzen saiatzen. Ez dugu ilusiorik galdu! Biharko askatasunaren ametsa gaurko iraultza-ren errealitatea delako, borrokak berak aske egiten gaituelako, utopian sinisten jarraitzen dugu eta irrikaz gaude herrira bueltatu eta zuekin batera ekiten jarraitzeko!

Kalera atera nahi dugu, herria ERAIKITZEN, herria ASKATZEN, herria EGITEN jarraitu nahi eta behar dugulako.

(Eta gure etxeratzea iskanbila bada... ongietorri nudista batera gonbidatzen zaituztet! ;) Herriaren esku beti! Gora bihotzak eta behera frakak!). ●

ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkaskura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:





BABESTU INDEPENDENTZIA

Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.

Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45

Zein dira gai beroak hezkuntza hitzarmenaren negoziaketetan?

Sare publiko eta itunpekoaren bereizketa gainditzeko formula; ikasleak euskalduntzeko estrategia; ikasleen segregazioari aurre egiteko erronka; eta hezkuntza deszentralizatzeko saiakera, eskumenak tokiko instituzioekin elkarbanatuz. Patata bero horiek azaleratu ditu EAEko hezkuntza hitzarmenak. Udazkenean Jaurkitaritzak argitaratu nahi duen hezkuntza legearen oinarria da hitzarmena, hasierako zirriborroari zuzenketak aurkeztu dizkiote alderdi politikoek eta negoziaketak puri-purian dira gai horien bueltan, adostasuna lortu aldera.

✂ MIKEL GARCIA IDIAKEZ 📺 SHU OTERO

Hitzarmenaren zirriborroan zuzenketa eta aldaketa ugari proposatu dituzte alderdi politikoek, eta martxoaren 18an Eusko Legebiltzarrean egingo den bozketa erabakigarria izango da. Orduan jakingo dugu zerk egingo duen aurrera eta zerk ez, baina dagoeneko badakigu alderdi bakoitzaren apustua zein den. Azken ordura arteko negoziaketetan ari dira EAJ, PSE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, hitzarmenarekin zenbat eta alderdi gehiagok bat egin, orduan eta egonkorragoa izango baita udazkenean badatorren EAerako hezkuntza legearen zilegitasuna.

1 Bi sare, hamaika buruhauste

Cristina Uriartek Hezkuntza sailburutza hartu zuenetik –2012 urrun hartatik– entzuten gabiltza EAerako hezkuntza lege berria egingo duela Eusko Jaurkitaritzak, eta heldu da unea. Hasiera-hasieratik, helburu nagusietakoa izan da gure hezkuntza sistemak duen errealitate duala gainditzea: bi sare nagusitan dago banatuta, publikoa eta itunpekoa –gutxi gorabehera EAEko ikasleen erdia hartzen du sare bakoitzak–, eta dikotomia hori apurtu nahi da.





Bide horretan, Ikastolen Elkartek aldarrikapena aspaldi du egina: euskal hezkuntza zerbitzu publikoaz mintzatu da azken urteetan. Alegia hainbat betebeharrak bere gain hartzen dituen ikastetxe orok, zerbitzu publiko bat eskaintzen duen heinean, legearen barruan egon behar duela, %100 diru publikoz finantzatuta –gakoa horixe baita, eskolen finantzazio publikoa–. “Denon artean zehaztu beharko dugu zer esan nahi duen publikotasunaren kontzeptu horren barruan egoteak, zein oinarri, printzipio eta balore dituen gure hezkuntza sistemak, eta horiek praktikara eramateko konpromisoa hartzen duten guztiek parte hartuko dute euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoan”, zioen Abel Ariznabarreta Ikastolen Elkartearen hezkuntza arduradunak, duela sei urte.

Planteamendu horrexekin egin dute bat EAJk eta EH Bilduk, eta hala islatu du hezkuntza hitzarmenaren lehen zirriborroak: Euskal Hezkuntza Zerbitzua delakoa sortuko da, eta zerbitzu horretan parte hartzen duten ikastetxe guztiek, eskola publiko nahiz itunpeko, %100eko finantzazio publikoa izango dute; horretarako, hainbat konpromiso bete behar dituzte ikastetxeek. Zirriborroak betebeharrak bakarrik jaso du esplizituki: ikasleen segregazioari eta gai honetan bai sareen bai zentroen artean dagoen desorekari aurre egiteko konpromisoak hartzea.

Kexu agertu da hainbat eragile, tartean Eskola Publikoaz Harro plataforma eta EHIGE gurasoen elkarteak, kritikatu formak dirudiela itunpekoak %100 diru publikoz finantzatzeko eta ikastetxe hauek egonkortzeko nahia –“txeke zuria” aipatu du hainbatek–, sare publikoaren finantzaketari erreparatu gabe, “finantzaketaren gaia sare pribatuaren doakotasunari buruzkoa baino ez baita; ez zaio heltzen hezkuntzako inbertsioa handitzeari, ezta hezkuntza inklusiboaren inbertsioak lehenesteari ere”, dio EHIGE.

Sareen bereizketa hori gainditzeko beste formula bat ere bazegoen mahai gainean: itunpeko ikastetxeak publikatzea, sare publikoko ikastetxe bihurtzea. Elkarrekin Podemosek egin du horren alde, ez beste alderdiek. EH Bilduk uste du “1993ko hezkuntza legearen ondorioz etorri zen publikazio prozesuaren akatsak errepikatzea” litzatekeela: “Ekarri zuen ikasto-

len asimilazio hutsa sistema publikoan eta sortu zituen oraindik askatu ez diren korapilo asko”, dio Ikoitz Arrese EH Bilduko Hezkuntza idazkariak. EAJ alderdiko kide eta Hezkuntza sailburu den Jokin Bildarratzentzat, publikazioaren “eztabaida hori uneotan ez dago gizartean”. Bere hitzetan, “zergatik publikatu ikastetxe bat, baldin badu adibidez hezkuntza proiektu sendo bat, soziala, eta inongo gogorik ezta beharrik ere publikatzeko?”.

**Legeak bere baitan
itunpeko ikastetxeak
hartuko dituela eta
%100eko finantzazio
publikoa lortzeko aukera
izango dutela ez dago
zalantzan;
kontua da, nola?**

PSE-K ERAGINDAKO ZIABOGA

Legeak bere baitan itunpeko ikastetxeak hartuko dituela eta %100eko finantzazio publikoa lortzeko aukera izango dutela ez dago zalantzan; kontua da, nola? Batetik, ikasleen segregazioari aurre egiteko konpromisoez gain, bestelako betebeharrak batzuk eskatu dizkiete alderdiek Euskal Hezkuntza Zerbitzuan parte hartuko duten ikastetxeei. Esaterako, Kristau Eskolari bete-betean eragiten dion betebeharra jarri dute mahai gainean EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek, zirriborroari egindako zuzenketetan: laikotasuna. Erlijioa hautazko ikasgai baino ez izatea eskatzen du Podemosek, eta Espainiako Gobernuaren LOMLOEk Erlijioari ezarritako ordu kopuru minimoa EAeko ikastetxeek eskaini dezaketen maximoa izatea eskatu du EH Bilduk. Azken alderdi honek langileen kontratazio garden eta demokratikoa, irabazi asmo eza eta parekidetasuna ere jarri ditu betebeharren artean, besteak beste.

“Funtsezko papera eta izaera” aitortu diote alderdiek eskola publikoari, eta publikazio progresibo eta boron-





datezko baten alde egin du Elkarrekin Podemosek, sare bakarreranzko trantsizio moduko bat, baina PSEk EAJrekin izandako negoziaketetatik etorri da ezustekoa: hasierako testuak bi sareak bateratu eta berdintzen zituen, eta PSEk eta EAJk elkarrekin aurkeztutako zuzenketetan, planteamendua bestelakoa da: itunpeko sarearekin itun politika mantentzea proposatzen da, alegia itun bidez finantzatuak izaten jarraitzea. Hasierako testuan bezala, adosturiko betebeharrei erantzuten dien ikastetxea %100 finantzatuko dute funts publikoek, baina kontzeptualki dator aldaketa, itunpekoak bigarren maila batean geratzen direlako eta biharko egunean itun politika aldatuz gero, ikastetxe hauen finantzaketari eragin ahalko liokeelako. EH Bilduk eta EAJk sareen egungo egituraketa aldatzea eta eskola guztiei betebeharrak eta eskubide berak ezartzea zuten helburu, horregatik EH Bilduk ez du bat egiten itunak mantentzearen formularekin. Negoziaketetan, praktikotasunak irabaziko du –itun bidez bada ere, %100eko finantzazio publikoa lortzea denek–, ala egituraketan jarriko da indarra –itun politika amaitu eta bi sareak berdintzea–?

2 Euskarak izango duen lekua

Diskurtsoa badakigu: legeak dio bigarren hezkuntza amaitzean, ikasleak euskara menperatu behar duela. Fokua horretan jarri ohi du Eusko Jaurlaritzak, deserosoagoa zaiolako helburu hori lortzeko ikastetxeek izan behar duten hizkuntza politikaz aritzea. Izan ere, gaztelania gailentzen den A eredua, gaztelania eta euskara protagonista dituen B eredua eta euskara lehenesten duen D edo murgiltze eredua ditugu oraindik EAEko ikastetxeetan, eta ikerketek diote murgiltze ereduak berak ez duela beti bermatzen ikasleen euskalduntzea, pentsa A eta B ereduak.

Gizarteko esparru zabal baten aspaldiko eskaera da: murgiltze eredu orokortu behar da, A eta B ereduak desagerrarazi. EAJk, baina, gaia

saihestu izan du, “euskararen eztabaidatik alde egin” behar dela dio Jokin Bildarratzek. Murgiltze eredu nagusi da EAEko ikastetxeetan eta gutxiengo diren A eta B ereduak ikastetxeak mantentzea estrategia ere izan daiteke, familiek hizkuntza eredu aukeratzeko duten askatasunaren izenean gurutzada judizial euskarafobo batean ez katramilatzeke –ez da lehenengo aldia gurean, eta Katalunian ere Espainiako Auzitegi Gorenak murgiltze eredu orokortuari eraso egin dio duela gutxi–.

Legeak zehaztuko al du “euskara ardatz duen eredu” izateak zer esan nahi duen, adibidez proportzioan zenbat ikastordu izan beharko diren euskaraz?

Ez da kasualitatea, hezkuntza hiztarmenaren abiapuntuko testuak ez ditu A, B eta D ereduak aipatu ere egiten, eta ikastetxeek izan behar duten hizkuntza politika zehazteko, ez du murgiltze eredu hitz horiekin izendatzen –ereduen desagertzea esplizituki azaltzeak edota murgiltze eredu hautatzeak aitzakia emango liekeelako alderdi eta eragile euskarafoboei, bazterketa linguistikoaren bandera epaitegietan haizatzeko–. Honela definitzen du legearen baitan egongo diren ikastetxeentzako hizkuntza proiektua: “Euskara ardatz duen sistema eleaniztuna”, zeina ikastetxe bakoitzak modu malguan egokituko duen, bere errealitate linguistikoaren arabera.

Berehalakoa izan da erantzuna, Euskaalgintzaren Kontseiluaren alde tik lehenik, beste eragile askoren ahotik ondoren: eskatu dute hiztarmenak –eta ondorengo legeak– propio jaso dezala egungo ereduen sistema bertan behera utzi eta “ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko dien eredu orokortua” ezartzea ikastetxe guztientzat.

Hala jaso dute zuzenketetan bai EH Bilduk, bai Elkarrekin Podemosek. Lehenengoak “euskara ardatz duen eredu eleaniztun orokortua” darabil eta argi uzten du euskarak izan behar duela irakas-hizkuntza, derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek hizkuntza ofizialak “ondo menderatzea” eta atzerriko hizkuntza batean gaitasun nahikoa lortzea dela jarri beharreko helburua. Elkarrekin Podemosek bere proposamenean dio “egungo sistema zatikatua gaingiditu eta euskara ardatz izango duen hizkuntza eredu eleaniztun bakarra” jaso behar duela legeak, derrigorrezko hezkuntza ibilbidea amaitzean ikasleek euskaraz zein gaztelaniaz B2 maila lor dezaten eta hirugarren hizkuntza batean B1 maila. Kontrako bidea egin dute EAJk eta PSEk.

ORAINGOAN ERE, PSE

EAJ eta PSEk batera aurkeztu dituzten zuzenketetan, zirriborroak euskarari ematen zion lehentasuna urardotu dute. Badirudi gobernukide duen PSEren eskakizunei leku egin diela EAJk, eredu bakar edo orokortua ez proposatzeaz harago, euskarari pisua kentzen dioten zuzenketak aurkeztu baitituzte Legebiltzarrean: derrigorrezko hezkuntza bukatzean ikasleak euskara eta gaztelania menperatu behar dituela dioen lekuan, menperatu ordez “jakintza praktiko nahikoa” izan behar duela diote orain EAJ-PSEk; irakasleen eta irakasle eta ikasleen arteko harremanetan euskara lehenetsiko dela dioen lekuan, lehenetsi ordez “euskara bultzatuko” dela jasotzen dute gobernukideek zuzenketetan; edota digitalizazio etiko, arduratsu, eraginkor eta euskalduna bermatzearen alde egiten den pasartean, zuzenean “euskalduna” hitza desagerrarazi dute jeltzale eta sozialistek.

Izatez, zuzenketa hauen norabidea gehiago da euskarari batzuek eta besteek hezkuntzan eman nahi dioten garrantziaren erakusgarri, legean ez baitu eragin faktikorik. Legerako inporta duena da zein eredu ezarriko den, eta formulazioa badugu jada: “euskara ardatz duen eredu eleaniztuna”. Kontua zera da, jasoko al du “orokortua” adjektiboa? Alegia, izango al da ikastetxe guztientzako eredu bakarra –nahiz eta eredu malgua dela nabarmendu duten, testuinguru linguistikoa aintzat hartuko duena–? Eta adostuko den hitzarmenean jakingo ez duguna: legeak zehaztuko al du “euskara ardatz duen eredu” izateak zer esan nahi duen, adibidez proportzioan zenbat ikastordu izan beharko diren euskaraz?





3 Segregazioa, ika-mika iturri

Gezurra dirudien arren, gaur egun eztabaidaren erdigunean dagoen gaiari ezikusia egiten zioten batzuek duela gutxi. Baldintza sozioekonomikoei eta ikasleen premia bereziei lotuta ikastetxe batetik bestera desorekarik edo segregaziorik zegoenik ukatu egiten zuen Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak, lau bat urte atzera egiten badugu. Ikastetxeek auzoaren errealitatea islatzen zutela zioen, nahiz eta agerikoa izan hainbatetan auzo berean eskola batetik bestera dagoen aldea, nahiz eta datuek dioten maila sozioekonomiko baxuko hamar ikasletik zazpik “ghetto-eskoletan” ikasten dutela.

Garai bertsuan, herri ekimen lege-gilea iritsi zen Eusko Legebiltzarrera, 17.000 sinaduraren sostenguz: Zubiak Eraikiz plataforma herritarrek eskola-segregazioa gainditzeko zortzi neurriko proposamena aurkeztu zuen, baina tramiterako onartu ala ez eztabaidatzea bera atzera bota zuten gobernuan zen EAJ-PSEk. Eta administrazioak esku hartzen ez zuen bitartean, sare publiko eta itunpekoaren arteko gatazka iturri nagusietakoa bilakatu zen. Premia bereziko ikasleen portzentaje handiena eskola publikoak hartzen duela-eta, desoreka horri buelta emateko nahikoa ez egitea leporatu zaio itunpeko sareari, hainbat esparrutatik. Horren aurrean, segregazioa amaitzeko borondatea dutela errepikatu izan du Ikastolen Elkartek. “Ikastolok behin eta berriro aldarrikatu dugu gu gauden eskolaren bakoitzean, edozein behar bereziko ikasle eskolaratzerakoan gure matrikulazio tasaren neurriko konpromisoa hartzeko prest gaudela”, zioen Abel Ariznabarretak, 2016an.

Liskarrak liskar, iaz bertan Jokin Bildarratzek zioen ikasleen segregazioa ez dela arazo EAEn. Hori bai, segregazioari aurre egiteko neurriak hartu behar direla onartu du: “Gure hezkuntza sisteman, zaurgarritasun guztiak ikastetxe guztion artean banatu edo landu behar ditugu, ez da posible ikastetxe batean kontzentratzea zaurgarritasun egoera handiena duten ikasleak”. Gelaren erdian dago

elefantea eta jada inork ez du beste alde batera begiratzeko, hitzarmenean bertan zentralitatea hartu du gaiak eta betebeharrak garbi jarri zaie ikastetxeei: segregazioari aurre egiteko konpromisoa –hasierako testuan, gainera, betebeharrak hau baino ez zaie ezarri, %100eko finantzazio publikoa eskuratzeko–.

Hitz potoloetatik harago, baina, neurri zehatzak eskatu dituzte sare publikoaren bueltako eragileek, eta batez ere, neurri betearazleak, gaur egun ikasleen matrikulazio orekatua lortzeko indarrean dauden neurriak betetzen ez direla argudiatuta. Hitzarmenari lotuta akordioa negoziatzen ari diren alderdiek neurriak proposatu dituzte zuzenketetan: besteak beste, matrikulazio dekretua aldatu egingo da –matrikulazio prozesu garden eta orekatua bermatzeko matrikulazio bulegoek hitz egiten da, egungo baremazioan eskua sartzea ongi neurritzeko zerk puntuatzen duen eta zerk ez eskola batean onartua izateko...–, eskola bakoitzak inklusioa bermatzen duela ziurtatuko duten indizeak ezarriko dira, eta gurasoen kuotak ezabatu dira –%100eko finantzazio publikoa jasota, ez luke zentzurik kuota kobratzea gurasoei–.

**Neurriak neurri,
funtsezkoa izango
da borondatea
politikariengan,
aniztasunari atek
zabaltzeko benetako
borondatea ikastetxeetan,
eta ikuspegi kolektiboa
izango duten
gurasoen borondatea**

Hitzarmenetik harago, gakoa legeak izango du: dekretuek nola isaltuko duten konpromiso maila, betebeharreko neurriak. Eta hala ere, handiagoa izango da erronka. Has-teko, ikastetxe batzuetan dagoeneko

handia da desoreka eta premia, eta neurri konpentsatzaileak iragarri dituzte, baliabideak; bestetik, jaiotzetasaren beheranzko joerak dugun panoramari ezinbestean eragingo dio, eta erne egon beharko da, arrakala ez areagotzeko; eta azkenik, borondatea funtsezkoa izango da: neurriak neurri, benetako borondatea politikariengan, aniztasunari ateak zabaltzeko benetako borondatea ikastetxeetan, eta ikuspegi indibidualista batetik harago ikuspegi kolektiboa izango duten gurasoen borondatea, matrikulazio prozesuak gaur gaurkoz familien hautua lehenesten baitu.

4 Tokiko hezkuntza

Azken urteotan hezkuntza komunitatearen baitan garatzen joan den herri hezitzailearen ideiak nolabaiteko isla izango du legean. Tokian tokiko hezkuntza lortzeko, herri bereko ikastetxeen elkarrekintza, udalaren inplikazioa eta inguruko eragileen parte-hartzea sustatzea da helburua, ikastetxeetako erabakiak ez ditzan zentralizatu ikastetxe horien errealitatetik urrun dagoen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

Batetik, kogobernantza ahalbidetuko du legeak, eta Hezkuntza Sailaz gain, udalek ere hainbat hezkuntza eskumen izango dituzte, herriko eskoletan eragiteko modua, bereziki “matrikulazio prozesuan onarpen protokoloak familiengana hurbiltzeko, azpiegiturak indartzeko, elkarbizitza sustatzeko, kohesioa bultzatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko”, dio hitzarmenak. Kogobernantzaaren esperientzia hezkuntzara ekarri duen proiektu pilotua martxan da Errenterian: bertako udala eskolaratze sisteman esku hartzen ari da otsailetik, ikasleen segregazioa murrizteko helburuz. Zehazki, ikasurtean zehar EAetik kanpo iristen diren ikasleen eskolaratzean esku hartzen hasi da, Jaurlaritzarekin lankidetzan.

Ildo berean, Tokiko Eskola Kontseiluak sortuko ditu legeak, herriko ikastetxe, udal eta hezkuntza komunitateen parte-hartzea bilatzen dutenak, honako jardunei lotuta: “Hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne; hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzen laguntzeko jarduerak eta behar diren neurriak hartzea, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera bategatik bereiztea saihesteko; ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak; eta udalerrria eremu duten patronatuak, partzuergoak eta hezkuntza-erakundeak eratzea”.

Deszentralizaziorako apustuan bat datoz alderdi politikoak, auzia izango da argitzea eskumen eta elkargune berriak martxan jartzen direnean administrazio eta eskola ezberdinak gai izango diren elkarrekin lan egin, aliantzak sortu eta aurrera egiteko.

Ikastetxeen autonomiari protagonismoa eman nahi diote hitzarmena negoziatzen ari diren alderdiek. Autonomia ez dadila izan desarautzearen sinonimo, ohartarazi du Elkarrekin Podemosek

Ikastetxeen autonomiari ere protagonismoa eman nahi diote hitzarmena negoziatzen ari diren alderdiek: ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektu egonkorra garatu ahal izatea, zuzendaritza indartsuak buru. Autonomia ez dadila izan desarautzearen sinonimo, ohartarazi du Elkarrekin Podemosek, emaitza ez dadin izan ikastetxe bakoitzak nahi duena egitea.





... eta erdi

Hitzarmenak eta datorren legeak duen beste korapilo baten adibide gisa, aipatu berri dugun autonomia jarriko dugu: ikastetxeen autonomia indartu nahi duela esango du legeak, bai, baina EHIGEn hitzetan, 1993ko legeak ere jasotzen zuen promesa hori, “eta hogeita hamar urteotan ez da ezer egin bide horretan”. Are, sare publikoan irakasleak ikastetxe bate-tik bestera badabilta ikasturtez ikasturte, nola bermatu eskola proiektu egonkorrak? Edo lan kontratazioan itunpekoek duten autonomia nola bermatu sare publikoan? Eta moduak egon badaude, Katalunian esaterako ikastetxe bateko zuzendaritza eta bertako irakaslea ados badaude, plaza luzatzen baitzaio irakasle horri. Segregazioaz aritu garenean ere gogoratu dugu: neurri batzuk jaso jasotzen ditu legeak, baina ez dira betetzen. Alegia, hainbat eragile ez da fio, hitz ponposoak ez dira nahikoa, asmo hutsean geratzen badira. Horregatik izango da funtsezkoa hitzarmenetik legerako jauzia, adostutako norabidea dekretu bihurtzeko prozesua.

Hainbat eragile ez da fio, hitz ponposoak ez dira nahikoa. Funtsezkoa izango da hitzarmenetik legerako jauzia, adostutako norabidea dekretu bihurtzeko prozesua

Eskoletako digitalizazioaz, ebaluazio ereduaz, irakasleen prestakuntzaz, haur hezkuntzaren doakotasunaz –EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosen eskaera–, eskola jantokiez, Euskararen Ikaskuntzarako Institutuaren eta Ikaskuntzarako Berrikuntza zentroaren sorreraz, Euskadiko Eskola Kontseiluaren rola... ere badihardu hitzarmenak. Ez da erronka makala, legeak eta EAEko hezkuntza sistemak izango duena. ●

“ ”

Zaharren egoitzetako enpresariak anonimotasuna eta inpunitatea dauzkate

Ahoztar Zelaieta

Bederatzigarren liburua argitaratu du Ahoztar Zelaieta Zamakona ikerketa kazetariak, Txalaparta argitaletxearekin: *Residencias SA. El negocio de los cuidados en Euskal Herria* (Egoitzak SA. Zaintzaren negozioa Euskal Herrian). Azken 30 urteetan zaharren egoitzen sektoreak izan duen pribatizazioa xehatu du, eta, beste behin, enpresa pribatuen eta administrazio publikoaren arteko loturak eta interesak azaleratu ditu.

 LEIRE ARTOLA ARIN

Zaharren egoitzetako langileak borrokan daude azken urteotan, patronalari lan-baldintza duinak eskatuz, besteak beste. Zu patronalari izen-abizenak jartzen saiatu zara lan honetan. Zer helbururekin?

Patronalaz hitz egiten zen eraikin bat balitz bezala, baina patronala pertsona batzuk dira. Hau da, erabakiak ez ditu patronalak hartzen, baizik eta enpresariak. Baina iritzi publikoak ez zekien nor ziren horiek; informazioa lapurtzen ari zitzaizkigun. Patronaleko enpresariak anonimotasunaz gain inpunitatea daukate, administrazio publikoak bat egiten duelako haiekin. Askotan borrokan dauden emakumeek ez dakite negozio-tzerakoan administrazio publikokoekin

edo patronalarekin dauden hitz egiten, nahiko disolbatuta baitaude.

Nire ekarpena izan da patronalaren aireko argazki bat ateratzea, erakustea zeintzuk diren patronal inportanteenak EAEn eta Nafarroan eta horien atzean zein izen-abizen dauden eta zer-nolako loturak dituzten administrazio publikoarekin, batez ere politika sozialak zuzentzen ibilitako jendearekin.

Hainbat herritan liburuaren aurkezpenak egiten ari zara. Zein erantzun jaso duzu?

Nire bederatzigarren liburua da, eta nabaritu ditut diferentzia batzuk. Batetik, oso mobilizatuta dagoen sektore bat ikusi dut: langileak, senideen elkarteak,

pentsionistak... Liburua aurkezteko gonbidapen asko jaso dut haien partetik. Bestetik, gaztetxeetan ez dut beste liburu batzuekin izan dudana arrakasta bera izan; adinekoak kexatu dira horretaz. Interesgarria izan da ikustea gizartea nola dagoen mobilizatuta, eta zein gaik sortzen duen enpatia gehiago.

Zaharren egoitzetako aferan inplikaturik daudenak oro har oso biktimizatuta daude, tratatu txar instituzionalengatik. Suminduta eta frustratuta sumatu ditut, ez dutelako ikusten etorkizun labur batean egoera aldatuko denik. 1991n adinekoen egoitzen %9 soilik ziren enpresa pribatuenak, eta gaur egun %9 baino ez dira guztiz publikoak. Horri buelta emateko aldapa oso gogorra da eta borroka



DANI BLANCO

honetan aspalditik dagoen jendea nekatuta dago. Haientzat liburu hau bultzada bat da, erreminta bat. Nik haien eskariekin bat egiten dut: sektorea publikatu behar da, eta bitartean hitzarmen duinak behar dituzte, adinekoei kalitatezko zerbitzua emateko.

Publifikatzeko bidean, eraginkorra da Gipuzkoan Kabiarekin egin zutena?

Kabiaren historia oso luzea da, baina laburbilduz: Bildu Gipuzkoako Diputazioko agintean zegoenean (2011-2015), lege bat zegoen esaten zuena diputazioek hartu behar zituztela udalen esku zeuden adinekoen egoitzen ardurak. Legea betetzeaz gain, Bilduk

“ ”

***Administrazio
publikoak sektorean
inbertitzeari utzi dio,
eta enpresa pribatuen
esku utzi du ardura
hori, edo itunak egin***

proiektua zuen egoitzak publifikatzeko eta langileak funtzionario bilakatzeko. Baina oso zaila zen orduko kao-

sa bateratzea: batzuk funtzionarioak ziren, besteak urte luzez kontratuak kateatzen joan zirenak, enpresa pribatuetako nominan egon baina egoitza publikoetan ari zirenak, azpikontrata... Langile guztiak bateratzeko eta sektorea publifikatzeko sortu zuten Kabia.

2015ean diputazioa EAJk hartu zuen berriz, eta Kabiaren proiektuarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Baina zer egin zuten atzeko atetik? Kabiara integratu ziren egoitza askoren kudeaketak enpresa pribatuei adjudikatu, besteren artean Biharko taldeari. Ez da zentzuzkoa izan EAJk Kabiarekin egingakoa, hasierako helburuaren kontrakoa baita. Pena izan da.

Patronal eta sare nagusiak

Araba

CREA/AEZE patronala, Araban 45 egoitza. Albertia, Mikelats, Nuevas Actividades Constructivas, Asistencia Geriátrica Iruña, Aitona Etxea, Tagore, Murua...

Bizkaia

GESCA patronala, Babesten taldea da handiena. EAEn 42 egoitza, bertakoak (Babesten, Urgatzi, IMQ-Igurco, Naguspea...), eta kanpokoak (Domus, Caser, Vitalia, Orpea, Sanitas, Adriano Care...).

Gipuzkoa

GAREN patronala, Gipuzkoan 10 egoitza. Biharko taldea da handiena.

Nafarroa

LARES eta ANEA patronalek 71 egoitzatik 64ren kontrola dute.

LARES instituzio erlijiosoen patronala, Nafarroan 39 egoitza eta EAEn 32.

ANEA enpresa pribatuen patronala, Nafarroan 25 egoitza. Zaharren egoitzen plazen erdia du, bertako eta kanpoko operadoreekin. Idea, Amma, Solera, Elizondo, IMQ-Igurco, Setenasa...



LAB

“ ”

Pandemian gertatu da gertatu beharrekoa, aurreikusten zena, eta horri bai deritzot larria

Liburuan fokua jarri duzu COVID-19aren eraginez egoitzetan izan diren heriotzetan.

Biktima ugari egon da. 90eko hamarkadatik ari dira ohartarazten egoitzetako kudeaketa txarraz Arartekoa eta Nafarroako Herriaren Defendatzailea, eta orain pandemiak sektoreko ahulezia guztiak agerian utzi ditu. Jakin nahi nuen klientelismoan sartuta dauden egoitzetan zenbat hildako egon diren, konparaketak egiteko, baina administrazioak ez ditu datuak xehatu nahi.

Azkenean zifrak lortu ditut Iker Rioja Eldiario.es-eko kazetariaren bitartez eta langile, senide eta politikarien informazioaren bidez; datuak hor daude, norberak aterako ditu ondorioak.

Dena den, niretzat inportanteagoa zen erakustea pandemiaren hondamendia baino lehen administrazio publikoak zer zekien egoitzen inguruan. Jakin dut egoitzetako ikuskapenak aurretik abisatzen dizkietela gehienetan, eta, halere, isunak jaso dituzte Biharko eta Babesten taldeek; imajinatu zer gauza larriak pasatu ziren isunak jartzeko. Eta administrazioak ez zuen erabaki egoitza horiek behin-behinean ixtea edo epaitegietara eramatea.

Aukera zuen administrazio publikoak hor esku hartzeko?

Noski, ahalmen osoa zuten zerbait egiteko, zigortutako enpresekin lotura dutelako. Langileak urteetan ibili dira salaketak jartzen baina ez diete kasurik egin. Pandemian gertatu da gertatu beharrekoa, aurreikusten zena, eta horri bai deritzot larria. Kriminologiaren Euskal Institutuak 2005eko

Zaharren egoitza publikoak Hego Euskal Herrian



Araba

94 egoitzatik 8 publikoak

Bizkaia

155 egoitzatik 4 publikoak

Gipuzkoa

65 egoitzatik 16 Kabia
Diputazioko organismo
autonomoarenak; baina gehienak
enpresa pribatuek kudeatuta

Nafarroa

71 egoitzatik 2 publikoak

txosten batean onartzen du egoitzetan tratatu txar instituzionala zegoela, eta administrazioak bazekien. Hori haurtzaindegietan edo baita presondegietan ere gertatu izan balitz, izugarritzko eskandalua litzateke.

Pandemian egoitzetan gertatu dena Euskal Herritik kanpo pasa balitz eskandalua litzateke, baina gure enprekin denez, ez da ezer gertatzen. Hemen EAJko burukide ohiek eta politika sozialen kargudun izandakoek izugarritzko kontratuak lortzen dituzte eta onartu egiten dugu. Aurkezpenetan harridura aurpegiak ikusten ditut, jendeak ez du espero hainbesterako denik. Euskal Herrian uste dugu gaitz guztiak kanpotik datozela, eta barrukoak ez dugu begiratzen.

Geurera begira: zaharren egoitzen pribatizazioa 1991-2007 urteen artean gertatu zela zehaztu duzu. Zer dela eta?

Administrazio publikoak ardura enpresa pribatuen gain utzi zuelako. Alde batetik, kapitalismoaren mentalitatean uste delako pribatizatutako zerbitzuak

hobeak direla, profesional hobeak daudela, eta administrazioari laguntza ematen diola zerbitzu horien kostuak eta ardurak hartzen. Baina errealitateak guztiz kontrakoa dio: enpresa pribatuek ardura hori hartzekotan dirua irabazi behar dute eta, beraz, zerbitzuaren kalitatea jaisten dute. Bestalde, atzean interesak daude, enpresa pribatuek influentzia eta harreman zuzena baitute sektore publikoan sartzen uzten dietenekin.

Modus operandi bat egon da: administrazio publikoak sektorean inbertitzeari utzi dio, eta enpresa pribatuen esku utzi du ardura hori, edo itunak egin ditu. Merkatu honetan arrakasta izateko enpresak dopatu egin dira, diru publikoaren bi injekzioekin: bat, egoitza pribatuetako plaza gehienak itunpekoak izatea, eta bi, titularitza publikoaren egoitzetako zerbitzuak edota egoitza osoak kudeatzea.

Azaldu duzu Nafarroako egoitzetako enpresek urtean 100 milioi euroko irabaziak dituztela, eta GESCA Bizkaiko egoitzen patronalak dio 130

milioiokak dituela. Nola da posible hain errentagarria izatea?

Ratioekin jolasten dute etekinak ateratzeko. %20-25eko errentagarritasuna lortzen dute, eta merkatuan hori lortzea oso zaila da. Baina lehia-abantailak dituzte, administrazio publikoaren bezero onena direlako eta eskaera oso handia delako. Dirutza publikoa jasotzen dute, eta aldi berean enpresa libre gisa neurritzen dituzte kostuak: bezeroei zerbitzu txikiena emanaz eta langileei ahalik eta gutxien ordainduz.

Zaharren egoitzetako enpresen eta EAJko kargu publikoen arteko ate birakariak ere aztertu dituzu. Ze abantaila ematen dizkiete ate birakariak?

Ate birakarien kontzeptua nahiko banalizatuta dago. Ez du esan nahi politikari batek gero enpresa pribatuan lan egitea, eta enpresa pribatuan egon dena gero politikara pasatzea. Hor atzean kontzeptu asko daude eta eskubide unibertsal asko apurtzen dira, hala nola lehiakortasunaren aukera berdintasuna, kontratu publikoak lortzeko abantailak dituztela-ko batzuek. Klientelismoa dago.

Patronalek, bertako enpresek zein kanpotik etorritakoek kontratatatu dituzte Euskadin politika sozialak zuzentzen ari ziren politikari batzuk. Postua utzi eta atoa hasi dira patronalarentzat edo enpresa pribatuentzat lanean, eta zubi horretan informazio asko pasatu dute. Gainera, burukide batzuek informazio pribilegiatua zeukaten sektorearen norabideaz eta, hori jakinda, enpresa pribatuak sortu dituzte, pastelaren zati handi bat hartzeko. Enpresa horiek guztiak saretuta daude eta batera egiten dute lan.

Zergatik etorri dira kanpoko enpresak, jada bertakoak egonda?

Negozio aukera bat ikusi dutelako. Izan ere, zahar egoitzetako sektoreaz gain, etxez etxeko laguntza, adin txikikoek zaintza eta abar kudeatzen dituzte bertako enpresek. Haien negozio abanikoa hain da handia, non ez baitute gehiago behar. Kanpoko enpresa handiek ikusi dute zerbitzu gehiago behar dela, gero eta bezero gehiago dagoelako eta administrazio publikoak ez duelako sektorean inbertitu nahi. Gainera, hemengo modus operandia erabiltzen jakin dute, eta burukideen enprekin aliantzak sortu dituzte edota EAJko burukideak kontratatatu; CASERek, adibidez. ●



*Euskalkulagailuaren bitartez
ikasleak klik eginez
ulertzen du euskal aditza”*

LANDER IRURETAGOIENA

Euskara ikasleari tresna berria eskaini dio Lander Iruretagoiena Busturia (Bilbo, 1980) irakasleak. Enpresa, Administrazioa eta Zuzendaritza ikasketak egin zituen, baina euskara irakasle da 2007az gero. Gaur egun, Erandioko euskaltegian dugu lanean.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Euskañolaren aurrean, euspañola

Gure hizkuntzaren irakas-kuntza errazteko materiala sortzen hasi zen, hainbat gai pilatu, harik eta dena bildu eta argitaratu zuen arte, hala paperean nola sarean (www.euskaragara.net). Harrera ona izan zuen hasieratik, 2014koa baita lehen argitalpena, eta bosgarren edizioan ari baita dagoeneko. Iruretagoiene sinetsirik dago metodologia aldatuz gero, irakasleei formazio egokia eskaini eta eduki interaktiboetan trebatuz gero, euskararen irakaskuntza hobetuko litzatekeela. Berak, ohi ez bezalako erreminta jarri du irakasle-ikasleen eskuetan.

Zer duzu zure liburu hori, *Claves para aprobar el B1. Base de B2 y C1. Euskara azterketa gainditzea da helburua?*

B1eko ikasleentzako amua izan dadin jarri nion titulu hori nire materialari. Hasieran, euskaltegian jasotzen nituen ikasleak ezinean zeudenak ziren, B1 mailan, alegia. Eta materiala sortzen hasi nintzen. Egia esan, materialik sortu nahi izatekotan, horixe da mailarik errazena ere. Bestalde, aspaldi konturatu nintzenez, maila guztietakoa da euskara ikasteko nahiz irakasteko erronka, baita zailtasuna ere. Dena dela, nahasterik izan ez dadin, esan behar dut nire hau ez dela metodoa. Nire materiala ez da *Bakarka*, ez IKAre metodologia, ez AE-Krena; ez da *Primeran*, ez *Arian*. Nirea, euskararen gramatikaren gida bat da. Ikasleak edukien mamia di-da batean harrapa dezan diseinatu nuen materiala, euskarazko eta gaztelaniazko azalpenak ditu, trikimailuz eta arau pnemoteknikoz hornitua dator –euskararen irakaskuntzan batere landu ez den arloa–, kolore sistema bat du, ariketa interaktiboak eta bideoak...

Zure lana ez dela metodoa esan diguzu, gramatikaren gida bat baino...

Bai, material osagarri bat, ez metodoa, bakarrik nire materiala baliatuz ez dago euskara ikasterik. Ni sarean hasi nintzen eskolak ematen, nire kabuz. Esaterako, argentinar bat izan nuen lehen ikasleetakoa. Gero, eskola partikularrak ematek euskaltegian irakastera egin nuen jauzi, eta blog bat egiten hasi nintzen, dibulgazioa helburu nuela. Interesgarri iruditzen zitzaizkidan gauzak idazten hasi nintzen, eta sarera igotzen. Uste nuen ez zuela inork ikusiko, baina oker nongoen,

“Hemengo proposamena zera da: ez kikildu 'euspañol' egitean. ETB2n Klaudio Landa dugu horren adibide –agurrak edo eskertzekoak esatean–. Aurkezle askok kontzienteki egiten dute. Hori bai, segun eta norekin, euspañolari ere uko egiten diete [hor dago kokxa, beraz, geureari eustean]. Euskaraz egin ezin baduzu, hau da, beste interlokutoreak ez badu ezagutza nahiko, txertatu euskara gaztelaniaz ari zarenean –irribarre batez, ahal bada–: gure komunitate linguistikoa agerian utzi behar zaie. Nolabait '*Aizu, hemen gaude, gu ere existitzen gara*' gogorarazteko modua da”.

jendea nire blogera heltzen zen, nola ez nekiela! Gero, klaseak ematen ari nintzela, ohartu nintzen zenbait eduki azaldu nahi nituenen –aditzaren paradigma, adibidez–, interneten topatzen nuena ez zitzaidan nahikoa iruditzen eta, orduan, apunteak idazten eta partekatzen hasi nintzen, Google Drive bidez. Las-ter, aditz koadroak egiten hasi nintzen, eta neure buruari galdezka: “Eta nola ulertarazi ikasleari aditz paradigma?”. Aditzak.com hartu nuen oinarri, pantailaren aurrean jarri, eta edukiak era jakin batean antolatu, ikasleak klik bat eginez, dena delako aditzaren ezaugarri guztiak –izan baldintza, baldintza ondorioa,

“
Euskararen
irakaskuntzarako
metodoak,
askotan,
zaharkiturik daude”

nor-nori-nork...–, ikaslearen pantailan uanean bertan agertu zitezen, koloreetan, taulatik nondik ateratzen den zehaztuz, baliokidetzak, itzulpena....

Ikasleak ez du aditz paradigma ulertzen?

Aditz taula ikusi, eta ez, ez du ulertzen! Horregatik egin dut materiala, ikasleari erreminta bat eskaintzeko, uler dezan. Ikasleari ez ezik, irakasleari ere eskaintzen diot egindakoa, errazago azal dezan gure aditz paradigmaren giltza. Erakuslea pantailan pasatu eta, puxika sistema bidez, azalpen guztia daukazu eskura, kontzeptu gramatikalak, bideoak eta beste... *Euskalkulagailua* izena eman diot, hau da, euskal aditzaren kalkulagailua, hitz jokoa eginez. Nik uste material honek aditzaren eta deklinabidearen arteko harremana ere ulertzen laguntzen diola ikasleari, eta ariketak, bideoak, teoria... denetarik du. Aditz edota deklinabide tauletan ikusten ez dena ikusarazten du *Euskalkulagailua*-k.

Zer dio zure materiala darabilen ikasleak?

Lagungarri zaiola. Gaur egungo ikaslea ohiturik dago pantailaren aurrean lan egiten, eta, horretan, beraz, ez da arazorik. Egia da azaldu nahi dudana ikasle batzuek hobeto ulertzen dutela tresna honen bidez; baina beste batzuek, aldiz, horrela ere barneratzeko zailtasuna dute. Beste zera bat ere badu tresna honek, ikasleari akatsak ikusarazi eta zuzentzen lagundu ahal baitio. Eta aditz landuagoak, forma jasoagoak erabili nahi diren kasuan ere, sistema honek ikasleari lagundu ahal dio. Horixe da nire materialaren helburua, behintzat: hizkuntzaren ikasketa erraztea.

Usteko nuen irakaslearen joera dela metodo nahiz metodologia bat hautatu eta hark erakutsitako bideari lotzea...

Ez beti. Eta, bestalde, euskararen irakaskuntzarako metodoak, askotan, zaharkiturik daude. Azken urteotan gauza politak egin dira, baina oraindik bidea dugu egiteko. Buruan ditudan gauza guztiak egin ahalko banitu, neurri handian erraztuko nuke euskararen irakaskuntza. Baina ez dut uste egingo dudarik: hainbat enpresarekin hitz egin dut, eta hasieran interesa erakutsi badute ere, hortxe gelditu dira nire ideiak, ez aurrera ez atzera. Eusko Jaurlaritzak *Boga* sistema du, adibidez, erabilgarria

da, baina zaharkituta dago. Hobetzerik badago, gamifikazioak –jokoak, alegia–, sariak eta beste erabiliz, hau da, ikasleari erronkak jarritz, ikastea dibertigarria gertaraziz, bisualagoa eginez... Gaur egunean ingelesa edo beste zenbait hizkuntza ikasteko erabiltzen diren sistemak baliatuko nituzke nik, Babble, Duolingo eta gisakoak. Nire ustez, euskara atzeratuta dabil bide horretan eta, gehiago esateko, gastatzen den diru asko ez da modu eraginkorrean gastatzen.

Zure ideiak hortxe gelditu direla esan duzu, ez aurrera ez atzera. Baina Euskaragara.net hau gauzatu ahal izan duzu, bederen.

2012an, ordu arte idatzita neukana bildu, eta ikasleari eskaini nion. Bitartean enpresarekin jarri nintzen harremanetan, eta informatikari, programatzaile, diseinatzaile eta gainerakoen laguntzaz gauzatu nuen materiala. Euskarria enpresa horrek eskaini zidan, baina ondoren, neuk sartu behar izan nituen edukiak, banan-banan. Eta aditz laguntzaile eta trinko guztien konbinazioak 4.000 inguru dira. Asko! Bateko aditz forma, besteko adibidea, itzulpena, ariketa, bideoa eta abar. Sekulako lana izan zen, ordu pila handia! *Naiz* formatik *nakarkio* edo *zekiokeen* formak arte... hortxe dira denak. Eta denak ez badira, %90 bai, behintzat. Nik uste *euskalkulagailua*-ren bitartez ikasleak errazago ulertzen duela euskal aditzak nola jotatzen duen, klik eginez. Bestalde, tutorialak ere uzten ditut Euskaragara-ren Youtubeko kanalean, eta han ikasleek galderak egiten dizkidate, gramatikaz nahiz halako edo halako deituraren jatorriaz.

Gaztelania txirenearen aldarrikatzaile zaitugu... Zer da, zuzen, gaztelania txirenea?

Gaztelaniaz hitz egiten dugunean, euskarazko hitzak sartzea. Euskaldunok euskañolez hitz egiten dugu, ezta? Nik, berriz, erdaraz nahitaez aritzean, "euspañolez" egitea proposatzen dut. Hizkuntza hege-



monikoaren zangoan gaude, euskaraz ari garenean ere etengabe jotzen dugu gaztelaniaren makuluetara. Bateko *¡Claro!*, besteko *Bueno* edo *Sin más...* Zenbait hitzek ez du baliokiderik euskaraz, eta gaztelaniara jo beharrean gaude. Ados. Baina, gehienetan, euskarak badu balio-kiderik, eta, hala ere, gaztelaniara jotzen dugu: euskañolaren parean, euspañola defenditzen dut nik, gaztelaniaz ari garenean, "*La andereño... He hecho el azterketa...*" eta horrelakoak lotsa barik erabiltzea. Ez al dago gaztelania anglizismoz gainezka? (*follower, online, challenge...*). Zabal dezagun, hortaz, euspañola!

Youtube kanalean hizkuntza paisaiaz ere ari zarela ikusi dugu...

Bai, eta "*sarrera, irteera, eman bidea...*", kaleen izenak eta gainerakoekin batera, garrantzitsua da erakundeek enpresa publiko zein pribatuei izenak euskaraz jartzea, eta ez ingelesez, adibidez. BEC, Basque Culinary Center, edo Urdaibai-ko Bird Center zera hori... "Azoka", "Jan", "Txori" izan zitezkeen erakunde horien

izenak, eta, horrela, nortasuna erakutsi, ingeles uniformatzaileira sistematikoki jotzen ibili beharrik gabe. Hitzak sikiera erdaldunen artean normalizatzea jo beharko genuke, zabaltzera. Pedagogia soziala egin nahi badugu, ezinbestekoa da euskarazko izenak jartzea enpresa, taberna eta bestelako guztiei. Nik uste horrek legez araututa egongo beharko lukeela.

Deigarri gertatu zait: irabazi asmorik gabekoa da Euskaragara.net.

Ez dugu diru-laguntzarik jasotzen baina irabaziak izan baditugu, eta horiek euskararen sustapenera bideratzen ditugu. Adibidez, etxeko atarian jartzeko euskarazko plakak sortu eta dohainik eskaintzen ditugu. Horma-irudiak sortzen ere laguntzen dugu. Euskararen presentzia bermatzea da helburua, betiere. Halaber, gailuak –izan telefonoa, izan ordenagailua– eta posta elektronikoa euskaraz erabiltzeko materiala eta kanpainak sortu ditugu. Euskarak presente egon behar du gure gizartearen arlo guztietan, eta horretan laguntzera ere badator. ●

BABESLETA:



Hondarribia
euskaraz bizi



CRISTINA RUIZ URIARTE



DANI BLANCO

Euskarak baditu milaka aurpegi

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Aitortu beharko didazu, (batez ere gipuzkoar) irakurle, izan duzula inoiz tentaziorik barre egiteko beste lurralde bateko euskal herritar batek zurea ez den molde bat erabili duenean euskaraz zerbait espresatzeko. “Hori gaizki esanda dago”, pentsatu duzu zure barrurako. Eta zure barrurako denean gaitz erdi, batzuetan ausartu ere egiten baikara zuzentzen! Baina harrituko ginatke, esateko manera desberdin bat entzun eta trufatu aurretik hiztegiaren begiratu bagenu, zenbatetan sartzen dugun hanka euskara batu jatorra hain ziur erabiltzen dugunok.

Iparraldeko esamolde eta hizkuntza formulekin gertatzen zaigu asko hegoaldekooi. ARGIA ere bistakoa da. Testuen zuzenketak kazetarien artean egiten dira, baina kazetari gehienek ez badute sobera ondo ezagutzen euskalki edo formula jakin bat, zailtzen du horren erabilera egoki bat egitea. Cristina Ruiz

Uriarte ARGIAko irakurlea da eta egoez jabetuta, esku bat bota dio komunikabideari. Bizkaitarra jaiotzez, urteak daramatza Baionan bizitzen. Aurretik kazetaritza ikasketak burututa, Baionako UPPAn euskal ikasketak egin zituen eta gaur egun hizkuntza arloko Ikerketa Masterrarekin ari da. Helduen euskalduntze lanetan aritua, ondo ezagutzen ditu mugaz bi aldeetako hizkuntzaren jolasak.

Martxoaren 4an formazio-saio txiki bat eskaini zion ARGIAko lantaldeari, euskara batuaren ikuspegi zabalago bat ezagutarazteko. Astekarian bezala sareko albisteetan ikusten dituen adibide zehatz batzuk azaldu dizkie kideei. Batetik, ikusten du iparraldean badirela esamolde asko oso erabiliak eta onartuak direnak eta ez ditu batere testuetan topatzen, eta bestetik, iparraldean oso erabiliak diren baina frantsesetik hartu eta euskarara moldatutako formula



Ez gara kolonialistak, baina...

Axier Lopez kazetariaren hitzaldia, “gure” esklabista eta kolonialistez, Elkanoren Mundu Biraren V. mendeurrena oinarri:

🕒 **Martxoaren 28an** 19:00etan

📍 **Ugao** Jane Jauregia

🕒 **Martxoaren 30ean** 19:00etan

📍 **Hernani** Biteri Kultur Etxea

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadanekin tertulian ariko dira Mikel Goñi eta Elena Laiz, bere liburuaz, eskola txikientzat:

🕒 **Martxoaren 28an**

📍 **Lasarte-Oria** Berritzegunea

ezegokiak ere badaude eta horietako batzuk sarri aurkitzen ditu.

Ogiaren erostera noa edo zure ikustera joan nahi dut. Iparraldean oso erabilia, euskaraz onartua eta ARGIA gehiegi ikusten ez dena. Mendebaldeko hiztunoi arrotz egiten zaigun beste formula bat baldintza hipotetikoak egituratzeko: *jaki-TEN banu -jakinGO banu*-ren baliokidea izango litzatekeena-. Aldi berean, usu erabiltzen da -rentzat atzizkia egoki ez den lekuan, frantseseko *pour*-en moldaketa bezala: *Bost egunentzat joanen naiz*, adibidez. Eta hori ez dago onartuta.

Zein zen saioaren helburua? Euskaraz onartuta ez dauden esamolde horiek ez betikotzea eta horiei alternatiba egokiak ematea, eta alderantziz, formula egokiak eta beren lurraldean oso erabiliak direnak astekarian ikusaraztea.

Beti dago zer ikasia eta saioa labor geratu da oraingoan. Milesker, Cristina, ea lortzen dugun idazkera fintzea. ●

BURUA JOTAKOEN SAGARRAK



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Txertaka edo txertatua, sagarrondoak (*Malus domestica*) eman du makina bat istorio eta asmakizun sortu dituen fruiturik. Kontu, komeria, gezur eta egia; zer ez digu sagarrak ekarri.

Batzuek Eva eta Adan asmatu zituzten, eta, bakoitzak geure burua munduko ogendant, hobendun, faltaduri, baiatsu eta errudun handientzat har dezagun, sagarraren istorioaren gezurkeria etengabe berritzen digute prediku aulkietatik, inongo lotsarik gabe. Beraiek ere hain gustuko duten sexua eta sagarra lotu eta, itxuraz, madarikatuz eta nazkabide batez emakumea eta sugea belztu, baztertu, gutxietsi eta zanpatzeko hagingindu. Gauza on bakarra ikusten diot nik faltsukeria horri: paradisuan sagarrondoak baziren. Neroni ere istorioak sortzen hasita: paradisua sagastia zen. Sagastia da. Izan ere zer litzateke paradisua zuhaitzik edota arbolarik gabe? Eta tentazioak sagarrrik gabe? Ni Oscar Wildek esan zuenarekin nago: edozeri buru egin diezaioket, tentazioari izan ezik. Betoiz sagarrak. Tentazio batzuk eztarrian trabatzen zaizkigu maiz. Adani sagarra kontrako eztarritik joango zitzaiolakoan, “Adanen intxaurra” esaten zaio gaztelaniaz gure zintzur sagarrari. Ingelesek eta frantsesek “Adanen sagarra” diote.

Jainkosa eta jainkoen arteko sagar batek ekarri zuen Troiako guda. “Ederrenarentzako” idatzia zeraman urrezko igaliak eta Afrodita merezi zuela ebartzi zuen Parisek eta horrek ekarri zuen guda sonatua. Urrezko sagarra Europako kultura ugaritako mitologiako ipuin eta istorio ugaritan agertzen da.

Gaur teknologiazale ia denen ahotan dabil sagar izen ingeles bat, “McIntosh”.

Newtonen grabitateak eraitziko
Newtonen sagarrondoa.

Maiz “Mak” laburduaz aipatua eta batez ere sagarra esateko ingelesezko “apple” bezala. Logoa ere halaxe da, hozkada eder bat falta duen sagarra.

Ezaguna da Newton buruan jo zuen sagarraren istorioa. Sagar hari zor omen zaio grabitatearen teoria ezaguna, lurrari lotzen gaituena, alegia. Gezurra omen da inongo sagar ausartek gure zientzialaria jo zuenik, berez sagarrak erortzen ikus-teak lagundu omen zuen teoria horren garapena. Izurri bubonikoa zela-eta, unibertsitatea utzi eta amaren etxera bueltatu omen zen; agidanez hango sagarrondo (*Malus domestica* ‘Flower of Kent’) bat da istorio horren ama. Sagarrondo hura hai-

zete handi batek eraitsi omen zuen XIX. mendearen lehen erdian. Mentu batzuk hartu eta Newtonen sagarra esaten zaion klona zabaltzen hasi zen East Mailing fruituen ikerketarako estazio sonatua. Haietako alaba ezagunenetako bat Cambridgeko Unibertsitateko Lorategi Botanikoan bizi zen, 1954an landatua. Beste ekaitz batek, Eunice ekaitzak, eraman du sagarrondo hori ere, joan den 2022ko otsailaren 19an. Haizeak lurra kendu eta Newtonen grabitateak buruz behera lurrera eraman du Newtonen sagarrondoa.

Uffa, zintzur sagarra sagar sagardoz sagardoztatzera noa, sagarrondopara. ●

ELIKADURA BURUJABETZAREN ERRADIOGRAFIA NAFARROAN

“NEKAZARITZA LURREN 21.000 HEKTAREA GALDU DIRA AZKEN 20 URTEOTAN”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urteak dira Nafarroako Mugarik Gabe, Mundubat, Arrea agroekologia elkarte eta beste zenbait talde elikadura burujabetzaren bueltan elkarlanean ari direla. Lanketa bateratu horretatik atera zen Nafarroan elikadura burujabetzaren egoera aztertzeke ideia, eta otsailaren amaieran aurkeztu dute azterketa horren emaitza den *Elikadura burujabetzaren erradiografia Nafarroan* txostena. Astero saiatzen gara atal honetara argi izpi diren proiektuak ekartzen eta ikuspuntu positibo batetik lantzen, baina ez gaitezen engaina... errealtatea ez da guztiz itxaropentsua. Horixe da erradiografiak azaleratu duena, beste behin.

PERTSONAK ELIKATZEKO, LURREN %25 SOILIK

Elikadura burujabetzara bidean nahitaezkoak diren baliabideak –lurra, ura eta bestelako baliabide naturalak– galtzen eta hondatzen ari direla da ikerketaren ondorio nagusietako bat. “Nekazaritzako lurra asko ari da gutxitzen, are gehiago lurzoru emankorra. Egun, %75 inguru zereal eta bazkek hartzen dute, erabateko monolaborantzaz hitz egin dezakegu Nafarroan”, dio Arrea elkarte-ko Ester Monterok, ikerketaren egileetako batek. Labore horiek abeltzaintza eredu intentsibora daude bideratuta, eta beraz, laborantza lurren %25 soilik bideratzen da pertsonen elikadurarako. Zabalduen dauden labore horietan, gainera, ureztatzeko sistemak eta ongargi kimikoak dira nagusi. “Pentsa, Nafarroako ubideko uraren %53 abeltzaintza industrialerako artoan erabiltzen da”, gehitu du Monterok.

Abeltzaintzaren datuak ere kezkarriak dira, eredu intentsiboa ikaragarri hazi dela erakutsi baitute. Ukuiluratu-tako oilaskoen eta txerrien kopurua,



esaterako, bikoiztu egin da ia. “Azken hogeitaz urteotan eredu estentsiboan hazten ziren txerri guztiak desagertu egin dira, egun %1era ere ez dira iristen”. Paradoxikoa da, azienda kopuruak nabarmen gora eginda ere, lehen sektorean gero eta jende gutxiagok diharduela, eta autonomoak ia desagertu egin direla. “Soldatapeko langileak dira nagusi eta autoenplegua desagertzen ari da. 15 urtetan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapienak ia erdira jaitsi dira, eta gutxi batzuen eskuetan kontzentratuz doaz”.

MANIFESTURA ATXIKITZEKO DEIA

Erradiografiarekin batera, honezkero 50 bat eragilek bat egin duten manifestua aurkeztu dute otsailaren bukaeran. “Hainbat esparrutan neurri zehatzak

proposatu ditugu manifestuan: lurra-ri, urari, nekazaritza eta abeltzaintzari, produkzio eta eraldatzeko moduei eta merkaturatzeari lotutako eskakizunak jaso ditugu”, laburbildu ditu Monterok manifestuko oinarriak. Hain zuzen ere, ikerketatik ateratako ondorio positiboak bakarrik agroekologiari eta baratze txikiei lotutakoak dira: eredu txiki eta ekologikoan gero eta ekoizpen eta pertsona gehiago ari da, hori da desagertze orokorrearekin kontrastea egiten duen gauza gutxietako bat.

Ikerketa hedatzea eta manifesturako atxikimendu ahalik eta zabalena lortzea da orain bultzatzaileen asmoa. Hori, eta jendartean, erakundeetan eta administrazioan eragiteko espazio bateratuak sortzen jarraitzea. ●



DIANE DI PRIMA

Otsemearen haginkada

 JULEN AZPITARTE

"Emakumeak egon ziren, han zeuden, nik ezagutu nituen, baina haien familiek eroetxeetan giltzaperatzen zituzten, elektroshock-ak ezartzen zizkieten. 50eko hamarkadan, gizona bazinen, errebelde izan zintezkeen, baina emakumea bazinen zure familiak giltzapetzen zintuen. Izan ziren kasu batzuk, eta nik ezagutu nituen. Egunen batean norbaitek haietaz idatziko du".

Gregory Corso, *beat* idazlea

1994. urtean

Jakina, Allen Ginsbergen uluetatik, Jack Kerouac-en errepideetatik eta William S. Burroughsen Jonki eta maritxuez harago, makina bat emakume idazlek parte hartu zuten 50eko hamarkadan AEBetan loratutako *beat* belaunaldian edo *beat* literatur mugimenduan. Halere, ez zuten gizonezko kideen lanen halako ikusgarritasunik lortu.

Emakume ezezagun horien lagin handi bat gaztelaniara eta frantsesera ekarri zuten Palma Mallorcako Annalisa Marí Pegrum itzultzaileak *Beat Attitude* (Beat Jarrera) liburuan, zeina *Beat belaunaldiko emakume poeten antologia* azpitu-luarekin plazaratu zen 2018an –Goizalde Landabaso kazetari eta idazleak antologia horretan bildutako artisten biografiak eta zenbait olerki bildu zituen *Pop Pilulak* fanzinearen 6. zenbakian, www.booktegi.eus plataforman eskura daitekeena–.

Denise Levertov, Elise Cowen, Joane Kyger, Hettie Jones edo Ruth Weiss dira liburu horretan jasotako emakumezko *beat* idazleak. Horietatik, baina, Diane di Prima nabarmentzen da. Poeta, prosa idazlea, artista eta irakaslea, 2020ko urrian zendu zen 86 urte zituela Kaliforniako San Frantzisko hiriko ospitale batean. Di Prima sortzaile polifazetikoa zen, hainbat esparru menderatzen baitzituen, hala nola, alkimia, magia, hinduismoa, gnostizismoa, tantra, filosofia esoterikoak eta budismoa. Aitzindaria izan zen emakumeei lotutako askotariko gaiei buruz idazten, tartean, hilekoa, abortua eta bisexualitatea.

Heriotza iritsi zitzaion arte, Annalisa Marí Pegrum itzultzailearekin aritu zen bere antologia poetikoa lantzen, eta horren emaitza da *Quita tu cuello degollado de mi cuchillo* (Kendu ezazu zure lepo moztua nire labanatik). Ingeleseztan gaztelaniaz ondutako bilduma elebidun horretan *Brass furnace going out: Song, after an abortion* (Itzaltzen ari den letoizko berogailua: Abestia, abortu baten ondotik) biltzen da. Abortatzea legez kanpoko jarduna zenean idatzi zuen di Primak, 1960an, eta autorearen baime-nik gabe argitaratu zen 1975ean. AEBetako eskuinak borondatezko abortuaren aurkako kanpainetan erabili zuen. Hori dela eta, autoreari mesfidantza handia eragin zion, eta, ondorioz, ez zuen baime-nik ematen argitaratzeko, emakume idazleen literaturan espezializatutako

Torremozas argitaratzaileak antologia elebiduna plazaratu duen arte.

Antologia horretaz gainera, Las Afueras argitaletxeak *Memoirs of a Beatnik* (Beatnik baten oroitzapenak) berrargitaratu du gaztelaniaz. Seguruenik bere obrarik ezagunena da AEBetatik kanpo. Prosaz idatzia, 1969an plazaratutako eta enkarguz egindako biografia faltsua da. New Yorkeko Manhattan auzoko *beat* mugimenduaren hastapenak kontatzen dituen "pulp nobela pornografikoa" da, garaiko giro libertinoan editoreek eskatzen zuten sexu uholde nahiari erantzuten diona: "Sexu gehiago". Di Primak bere komunako kideen sabelak jakiz eta birikiak kez betetzeko idatzi zuen Kalifornian.

ATZERANTZ HEGALDATZEN

50eko hamarkadan, di Prima New York hiriko Lower East Side auzoan bizi izan zen, eta hiriko kaleak zapaldu eta berehala, bizitza bohemioan murgildu zen. Aberastasun materialetatik urrundu zen, eta musikari, aktore, dantzari eta pintoreak ezagutzen xahutu zuen bere denbora. Esaterako, 1955. urtean Ezra Pound poeta eta idazlearekin gutunak trukatzeko hasi zen, eta ospitale psikiatrikoan igaro zituen hamabi urteetan ere sarri bisitatu zuen. Horrekin batera, jazz musika asko entzun eta barneratu zuen, bere idazkerari jazzaren lengoia txertatzeko asmoz. "Jazza guretzat momentuko arterik garrantzitsuena zen", dio *Memoirs*

of a Beatnik liburuan, jarraian Bird-en (Charlie Parker) dohainak goraipatzeko: "Gure ordezkari nagusiak saxoarekin eta tronpetarekin hitz egiten zuen".

Sasoi horretan Allen Ginsberg poetaren *Ulua* irakurri zuen estreinakoz. Identifikazioa berehalakoa izan zen, Di Prima antzeko estiloaren atzetik baitzebil: kaleko hizkera erabiltzen zuen poesia, modernoa, *hipster*-a, eta *cool* jarrerarekin sortua.

Jarrera horrekin idatzitako obretan norberaren emozioak eta epaiak baztertzen ziren; beraz, eginkizun domestikoek edo haurren hazkuntzak ez zuten lekurik. Hartara, gizonak errazago iristen ziren *cool*-tasunera. Horren harira, oso entzutetsua da Jack Kerouac-ek parranda toxiko batean di Primari bota zizkionak festatik joan zenean umezaina ordezkatzeko: "Di Prima, ez zara sekula idazlea izango, zure umezaina ahaztea lortzen ez baduzu".

Horiek horrela, Di Primaren garai horretako obrak *beat* giroan sortutakoak dira, eta *This Kind of Bird Flies Backward* da ospetsuena: 1958an argitaratu zen, baina 1953tik aurrera idatzitako poemak biltzen ditu. Berbeta kaletarraz gainera, bere estilo poetikoan bestelako elementuak nabarmendu ziren, puntuaziorik eza, interjekzioak eta berba berriak sortzeko laburdurak eta hitzen elkartzea, kasu.

1960an, *beat* mugimenduari eta afroamerikarren eskubideei lotutako LeRoi Jones (Amiri Baraka) idazlearekin maitemindu zen, bai eta haurdun geratu ere birritan. Lehenengo haurra galdu egin zuen, Jonesen presiopean, baina bigarrenaz erditu zen, Dominique. Di Primak urte horretan idatzi zuen *Brass furnace going out: Song, after an abortion* olerki luzea. Annalisa Marí Pegrum itzultzaile eta adituaren arabera, "abortatu berri duen umearen bizitzarekiko aienea da, baina baita bizitzako aukera galduekikoa ere". Erruduntasuna, frustrazioa, tristura, beldurra, haserrea eta onarpena ageri dira.

"flasko batean sartu nahi zaitut zure aitari bidaltzeko / ohar luze saminarekin. Nahi dut jakin dezala / ez dizuedala barkatu, ez zuri ez berari ez zarelako jai"o

Idazle ez ezik, di Prima editore ere aritu zen *The Floating Bear* aldizkarian, LeRoi Jonesekin batera: poeta esperimentalen eta gazteen lanak biltzen zituen, eta 1961tik 1971ra iraun zuen. Argitalpena ez zegoen salgai, FBIren jazarpena saihesteko: halere, di Prima eta



GLORIA GRAHAM

Jones espetxeratuak izan ziren 1961an "lizunkeria" leporatuta, agerkarian publikatutako William S. Burroughsen idatzi batzuk tarteko.

EGUZKI IRAULTZAILEA

1968an Kaliforniako San Frantzisko hirian finkatu zen, bertako kontrakulturan murgiltzeko asmoz. Idazlearen hitzetan, "poetak, Diggers-ak, Pantera Beltzak, Zen ikasleak, aitzindariak eta iraultzaileak, hiri honetan 1968an puri-purian zegoen esperimentu basati eta itxaropentsuan". Di Primak, hain justu, Diggers mugimenduan parte hartu zuen, kale antzerkiko aktibistaz eta aktorez osatutako ekintza komunitarioko talde erradikalean, zeinak Haight-Ashbury auzoan jarduten zuen.

Giro aldarrikatzaile eta eraldatzaile horren itzalpean, *Revolutionary Letters* (Gutun iraultzaileak) poemak plazaratu zituen 1971n, Lawrence Farlinghettiren City Lights City Poets argitaletxearen bidez: bat-bateko testuak dira, kalean irakurtzeko sortuak, teatro kaletararen erara.

Urtebete geroago, Grant Fischer poetarekin ezkondu zen; urtebete lehenago, bere bosgarren haurra izan zuen harekin. Orduan amaitu zuen *Loba* (Otsemea) liburu epikoa. Hamarkadak eman zituen obra hori zuzentzen, osatzen eta zabaltzen, idatzi jarraitu baten antzera. Feministateari buruzko errepresentazioa

jorratzen du, hala literaturan nola erlijioan, eta izenburua AEBetako natiboen-gandik hartu zuen, emakumea jainkosa otseme gisa irudikatzeko helburuarekin.


"Eta Otsemea ehizatuko duzue? / Inozook, zer erabiliko duzue, / lantza, arpoia edo gezia, pistola/ edo boomeranga? / Harrapatu dezakezuela uste duzue, / maitasunaren sareetan? / Hark zamalkatzen du / ilgora baltsa baten lege / zeruaren korrante ekaiztsuan / Harentzat arrantzatuko duzue? Espero duzue / haren berokiarekin berotzea / datorren neguan?"

Hartara, giro kontrakultural horren irakinaldian, di Primak *beat* estiloa abandonatu zuen neurri handi batean, bai eta etiketa hori gainditu ere, ibilbide luzeegia eta oparoegia egin baitzuen *beat* zigilura mugatzeko -gogoratu hainbat diziplina menderatzen zituela, alkimiatik hindusimora-. 2014an plazaratu zuen bere azken poesia bilduma, *The Poetry Deal* (Akordio Poetikoa); bertan, hain zuzen, *Keep the Beat* (Mantendu *beat*-a) olerkia jaso zuen, *beat*-a gizonetzko idazleen klub bat edo literatur joera bat baino, gogo-aldarte bat dela aldarrikatzeko:

"ez da 'Belaunaldi' bat
Uler ezazu-

aldarte bat da" ●

Kiev ala Kyiv?



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Ukraina, XIX. mendearen amaiera. Ukrainera modernoaren arauak ezarri zituzten. Herrialdea Errusiari Inperioaren menpe zegoen, baina politika inperial sozioekonomiko liberalei esker eta, mende luzez gerran eta gatazkan murgildua egon ondoren, tarte baketsua baliatuz, loraldi kultural eta ekonomikoa izan zuen herrialdeak. Lehen unibertsitatea sortu zen hiriburuan, baita lehen opera antzokia zabaldu ere. Telegrafoa, tranbia ea azpiegitura ugari lehenengoz iritsi ziren, eta testuinguru horretan arautu zuten hizkuntza. Arau horietako batek zioen hiriburuaren izena Київ zela ukraineraz, eta haren forma latinizatua, hau da, mendealdeko herrialdeek erabili beharreko exonimoa Kyiv zela. Baina ukrainarren ahaleginak ez zuen emaitzarik izan eta atzerrian Kiev izena erabiltzen jarraitu zuten nagusiki, errusierazko Киев toponimoa jatorria duena. Batetik, Ukrainak ez zuen sekula estatu propiorik izan, eta errusiera edo poloniera nagusi ziren estatuen parte izan zen ordura arte. Bestetik, politika sozioekonomiko irekiez gain, gobernu inperialak errusifikazio zorrotza ezarri zien herrialdean bizi ziren ukrainar, poloniar eta judutarrei.

1917ko azaroaren 20an Ukrainako Errepublikak aldarrikatu zuten, baina independentziak gutxi iraun zien ukrainarrei. 1920an sobietarrek hartu zuten herrialdea eta hurrengo sei hamarkadatan errusifikazio prozesua areagotu egin zen, Kiev exonimoaren erabilerarekin batera.

1991n independentzia berreskuratuta, errusifikazio prozesua iraultzeko ahaleginei ekin zien gobernuak. 1995ean toponimoak latinezko alfabetora ekartzeko legeak ezarri zituzten, eta Kyiv hiriburuaren exonimo ofiziala zela berretsi. Baina kanpainak ez zuen arrakastarik izan, gatazka politikoek bultzada eman zioten arte. 2014ko Krimeako krisiaren eta Donbasseko gerraren ondoren ingelesez Kyiv-en erabilera asko hedatu zen. Eta, berriki, errusiarren inbasioaren ondorioz, hizkuntza gehiagotara ari da zabaltzen.



BUYEN ARGE

Sobietar garaiko afixa turistiko honetan, ingelesez "Kiev" forma erabiltzen da, errusierazko izena jatorri duena, eta ez "Kyiv", ukraineratik datorrena.

Nazio Batuen Erakundeak ingelesez eta gazteleraz Kyiv forma erabiltzea gomendatzen du, Espainiar Errege Akademiak Kiev-en alde egin arren. Baina NBEk berak frantsesez Kiev erabiltzeko proposamena egin du orain arte.

EXONIMOEI TIRAKA

Exonimoentzako ez dago arau edo irizpide garbirik, eta askotan kontrajarri egiten dira. Ohiturari eutsi behar zaio ala jatorria errespetatuz aldatu behar dira izenak? Idazteko moduari eman behar zaio lehentasuna ala ahoskerari? Alfabeto latinoa erabiltzen duten hizkuntza guztietan forma bera erabili behar da ala bakoitzak berera ekarri behar du?

Paris berdin idazten da frantsesez, ingelesez edo euskaraz, baina desberdin ahoskatzen da. Euskarazko Txina, gaztelerazko China eta italierazko Cina, aldiz, berdin ahoskatzen dira, berdin idazten ez diren arren. Gainera, nahiko urrun daude txinerazko jatorrizko ahoskeratik; Zhongguo edo Zhonghua

litzateke fonetikoki gertuen dagoena.

Eta Txinan gaudela, nola esan behar diogu hiriburuari? Pekin ala Beijing? Peking izan zen luzaroan izen latinizatu nagusia eta hortik dator Pekin. Beijing jatorrizko ahoskeratik hurbilago dago eta, esaterako, ingelesez hori erabiltzen da. Hala ere, alemanieraz, errusieraz edo gazteleraz Pekin formari eusten zaio. Italiarrek, aldiz, Pechino esaten diote.


Euskaraz ere badugu inguruko toponimo nagusiak gureratzeko joera (Bordele, Madril, Bartzelona...), baina horretan nagusi italiarrak dira: Frantziako hiriburuari Parigi esaten diote, Frankfurt hiriari Francoforte...

Hala, irizpide garbi eta bateraturik ezean, Kyiv nagusituko da ala Kievek eutsiko dio? Alemaniak dozenaka exonimo izaten jarraituko du (Germany, Allemagne, Saksa, Niemcy, Tyskland...) ala jatorrizko Deutschland zabalduko da? Hungariari egunen batean Magyarország esango diogu? Edo, errazago, Finlandiari Suomi? ●



LIBURUA

Soinekoa jantzita



DANI BLANCO

BIHURGUNEKO NASA

UXUE APAOLAZA

SUSA, 2021

AMAIA ALVAREZ URIA

Harria kolpez kolpe zizelkatuz, forma zehatz eta finduak dituen lana ondu du Uxue Apaolazak. Bederatzi ipuin sortu ditu eta *Bihurguneko nasa* izenburupean bildu. Arin eta erraz irakurtzen diren arren, berrirakurtzera gonbidatzen zaituztet bertako geruzak deskubritzen joan ahal izateko.

Azalari begiratzeko badiogu, izenburuak eta irudiak barruan topatuko dugunari buruzko pistak emango dizkigute. Batetik, *Bihurguneko nasa* izenburua dugu, barruko aipuarekin batera metroko bihurguneko nasa eta bertan irtetea izan beharreko arreta –eta bide guztiak zuzenak ez direla– gogoraraziko digute. Bestetik, arrain gorri bat dugu, burua eta gorputz erdi uretatik kanpo ateratzen duena, bere ohiko


ingurunetik kanpo dagoenak sentitzen duen zirrararen sinboloa.

Protagonista Lur da, 40 urteko ama langilea. Zuria, heteroa eta klase ertainekoa. Madrilen bizi den euskalduna. Lagunartean, kalean gizon ezezagunekin, bikotekidearekin etxean, lankideen ondoan, familiari bisita egiten edo ohean ezin lokartu topatuko dugu orriotan.

“Soineko leun-leuna neraman” esaten digu narratzaileak *Kaptatzaile* ipuinean eta “Arroxaz jantzita” doala dio *Auto beltza* ipuinean. “Madrilgo rastroan bost euroan erositako soineko loreduna” darama berriz *Prozesionariak* ipuinean; “Jantzi, izan nahi zenukeena izateko” soinekoa da, saltzailearen arabera. “Normal” hitza askotan errepikatuko da, bere ingurukoei buruz berbetan, bera hortik kanpo dagoela eta horren nahia duela

adieraziko digu: “heldu zoriontsuak”, “gazte kantariak”, “haur negartariak” aipatuko ditu. Soinekoa jantztea ez baita ohikoa emakume batzuentzat, nahiz eta emakumeen arropa izan.

Baina aldi berean jonkiak, putak, eskaleak eta errumaniarrak agertuko dira *20 euro*, *Ekipo bat* eta *Manoletinak* ipuinetan, protagonista “normal” bihurtuko duten “besteak”. Hortaz, pertsonaia nagusiaren pribilegioak eta zapalkuntzak aletuko dira; gatazka eta desorekak erakutsiko zaizkigu. Lan munduko prekarietatea ere agertu eta desagertuko da. Eta familia, amatasuna, sexua. Erroak dituen deserrotua da Lur, sistemaren parte dena, baina parte sentitzen ez dena. Autokritika eta hausnarketarako aukera irakurleontzat, identitate eta alteritate jokoan murgiltzeko parada. ●



MUSIKA

Paisaia porteñoetatik pagodetara, Alhambratik igaroz



GAZTELA ETA LEONGO ORKESTRA SINFONIKOA

MUSIKA MÚSICA JAIALDIA

Euskalduna Jauregia, martxoaren 6a.

BAYERISCHE KAMMERPHILHARMONIE

Zuzendaria: Gabriel Adorjan

Egitaraua: Vivaldiren eta Piazzollaren lanak

GAZTELA ETA LEONGO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Gabriel Bebeselea

Egitaraua: Joaquín Rodrigoren eta Manuel de Fallaren lanak

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Alaitasun handiz ari gara, azkeanean, ia dena normala eta lasaia den ekitaldietara joaten musikazaleok, interpretazio onez eta programa bikainez gozatzen. Hau poza!

Horren adibide izan da joan den asteburuan Bilbon egin zen Musika Música jaialdia. Jaialdi honetan musika klasikoko maratoni bat ematen da, ordu guztietan, interprete eta estilo anitzekin; beraz, konplikatu da bakoitzaren gustuko kontzertu edo errezitaldi bat ez aurkitzea. Egia esan, zaila egin zitzaidan zein kontzerturi buruz idatzi aukeratzeko. Baina nabarmendu nahi ditudan programa erakargarriak eta interprete bikainak dituzten bi saio aukeratu ditut.

Gabriel Adorjan kontzertinoaren gidaritzapean jo zuen Bayerische Kammerphilharmonie-rekin hasiko naiz. 1990ean Augsburgen musikari gazte

talde batek sortutako talde honek Euskaldunako publikoari dardara eragin zion energiak beteriko eta izugarri trinkotutako interpretazio batekin. Saioa benetako gozokia izan zen: batetik, Vivaldiren *Uda* eta *Negua* eta, bestetik, Astor Piazzollaren *Udaberri porteñoa* eta *Udazken porteñoa*. Hasiera batean zerikusi gutxi duten estiloek ohiz kanpoko lotura lortu zuten. Vivaldiren barrokoko pasioak eta Piazzollaren dantzak eta sakontasunak giro paregabea sortu zuten, eta entzuleek txalo zaparrada handiz eskertu zuten.

Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoarekin norabidea erabat aldatu genuen. Espainiako musika klasikoko bi obra enblematikoz osatutako programa interpretatu zuten, soinuaren fintasun handiarekin. Gitarra eta orkestrarako Rodrigoren *Aranjuezko Kontzertua* zo-

ragarriak zentzu berria hartu zuen Rafael Aguirre bakarlari gaztearen interpretazioarekin, une honetan munduan erreferentzia diren gitarristetako bat baita. Benetan belusezko bertsioa izan zen artista honek eskainitakoa, bisean ere liluratu zuena Tarregaren *Alhambraren oroitzapenak* piezarekin.

Era berean, Judith Jauregi ere asko gustatu zitzaigun bakarlari gisa Fallaren *Gauak Espainiako Lorategietan* izeneko piano eta orkestrarako obran. Lan honetan, pianistak birtuosismoa, soinu dotorea, fantasia eta adierazkortasuna zabaldu zituen une oro. Propina gisa, bakarlari donostiarrek Debussyren *Pagodak* pieza eskaini zuen. Beharbada musikagile frantziarraren musikaren giro etereoak falta izan zen arren, dotorea eta teknikoki perfektua izan zen bertsioa. ●



Lau euroko garagardoa eskuan apatiari garrasi

 PERU IPARRAGIRRE

Idles Bilbora zetorrela jakin bezain pronto egin genuen plana, eta sarrerak ere berehala hartu genituen. 2021eko urriaren 14an izan zen. Kontzertua ia lau hilabete beranduago izango zen, Bilboko Santana 27 aretoan, sarrera bakoitzak 25,7 euro, eta gu dagoeneko hortzak luze. Egun horretatik hilabetera argitaratu zuen Bristolgo taldeak *Crawler* diskoa.

Egunak, asteak eta hilabeteak ziztuan igaro dira, esan diogu elkarri Bolueta-ko geltokia pasatuta dagoen poligonoko diskotekara sartzeko ilaran zain gaudela. Estetika identifikagarria da bertakoen gehiengoarena, eta, zorionez edo zoritxarrez, itxura modernoko gazteen artean ez gaude hain lekuz kanpo.

Bilbora bidean entzun ditut iluntzeari hasiera emango dioten beste taldeak, jakin-minez. Manchesterreko Witch Fever eta New Yorkeko Bambara, Idles bira honetan laguntzen ari direnetako batzuk. Dagoeneko Berlin, Brusela, Paris, Lyon,

Milan eta Toulousetik pasa dira, eta aurrean dituzte Bartzelona, Madril eta Lisboa. Sopresa ona izan da Witch Fever, iluna eta pisutsua (ezen ez aspergarria) izan da haien kontzertua, eta lehen akordetik erakutsi dute indarra eta amorrua. Itxura bikaina duen gaualdiarentzat hasiera aproposa. Labur geratu da, ordu erdi baino gutxiago hasi eta buka. Lau euroan ordaindutako kaña(txoa) amaitzeko astia ozta-ozta eman digu.

Bambararen txanda izan da gero eta seko aspertu gara, ez genituen ezagutzen eta ez digute ezer berririk esan. Kontzertu osoan kanta bakarra jo izan balute bezala, amaiera aldera hartu du altura apur bat haien set-ak, baina horretan amaitu da. Bitartean, betetzen joan da aretoa.

Barrara joan gara, ea garagardoa merkeagoa dagoen botilan edalontzian baino eta dezepzioz itzuli gara gure lekura, eskuan lau euroan ordaindutako Heineken banarekin. Nahiko aurrean eta erdi-er-

IDLES + WITCH FEVER + BAMBARA

NOIZ: martxoak 7

NON: Santana 27 (Bilbo)

dian jarri gara, eta lagun batek abisua eman digu, *pogoen* eremuan gaudela.

Colossus erraldoiarekin hasi dute kontzertua, eta bigarren abestiaren aurretik Joe Talbot abeslariak ikusleak bitan banatu ditu, profeta balitz bezala, eta berriz batzean askatu da jendeak barruan zekarren dantzarako eta mugitzeko gogo, lasaitasunik bazen orduan amaitu da.

Abesti gehienak, eta batez ere errepi-ka oihukatuak, gogoz jarraitu ditugu, eta musikariak ere taula gainean gustura zeudela zirudien. Ordu eta erdi katartikoa izan da, ezin zuen bestela izan. Idles-en kontzertuak, kantak bezala, ondo ezkontzen dira gure garaiaren apatian biziraute nahiarekin, amorruarekin eta maitasunarekin. Baina amorru hori eta maitasun hori, edo abesten dioten batasun hori eta norberarengandik hasten den iraultza hori zein baldintzatan ematen den, hortxe dago kokka. Pozik itzuli gara etxera, hustuta, baina pentsakor. ●



Hitz gezidunak

KULUNKATZEKO ESERTOKI ITXURA	KOADERNO EGIPTOKO FARAOIA	PERTSO- NAIAREN IZENA	EME EZ DENA TARTE, GARAI	RONA ABIATZEN DA	NEGUKO OIHALA EDOZEIN, ZEIN-NAHI	DENBORA LUZEAN TEILAK EGITEN DITUENA
		ASALDATU, GOGOA NAHASI ZIRKONIOA				
BAIZIK MESO- POTAMIA ANTZINAKO HIZKUNTZA			OHOREZ ROENTGEN			
				KASIK, ABANTZU NOREN ATZIZKIA		
EZEN	SARA A BARIK ZATARKI				LAWREN- TZIOA PERTSO- NAIAREN ABIZENA	
					ABARASKA URA LURPETIK ATERATZEKO TRESNA	
BETE NANOTESLA					GARIAREN HAUTS INBUTU	
	LITROA BAILARA, HARAN					
OKELAREN ZAINA (ALDE- RANTZIZ) ALMENDRON- DO		1500 ERRO- MATARRA NAZIOARTE- KO OLINPIAR BATZORDEA	ILE (BIZKAIERAZ) ERABAT, TXIT	OXIGENOA ARRAS, ZEHARO	RADONA JUSTU, NEURRIZ	PILOTAN, TANTO ZIUURRA
					POTENTZIA ERRE- PIKATUZ, GOROTZA	
ZATI, PUSKA KONORTEA URRITZEA		SERIO TASU- NEZ BAT ERROMA- TARRA				
			OLIBAREN ZUKUA (PLURALEAN)			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		1		8		7	2
5			2				4
		7		5			
		3	7		1		
6	1	2		3	4		
7			9		2		3
1		5				4	2
2		6		4	3		5
	4	9	1		5		6

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Salgai baten zati.
2. Zuhaizpeko babesgune.
3. Uztail.
4. Gariaren hautsa.
5. Nolatan.

EBAZPENAK

5. NOLAZ

4. IRINA

3. GARI

2. ABAR

1. LAGIN

SXS

7	9	8	5	1	2	7	6	3
2	7	8	4	3	6	5	9	1
1	8	5	6	7	4	3	2	9
3	6	4	2	1	5	7	8	9
6	1	2	3	4	7	8	5	9
5	3	6	7	1	2	4	8	9
8	6	3	4	7	1	2	5	9
9	2	7	4	5	6	3	1	8
4	5	3	2	1	7	6	9	8
3	8	9	5	1	3	6	2	7

K	V	O	I	L	O	O	I	B	V	R	O	Z
I	R	O	S	R	I	S	O	T	V	T		
P	R	B	N	O	L	O	N	D	O		V	A
N	R	N	O	U	M	G	I	V				
N	I	R	I				L		T	N		
V	G	A	H	U			E	S	V			
O	V	A	V					E	Z	E		
R	L		N	E			R	S				
V	I	V	I	V	R	E	I	R	E	M	U	S
Z	E	N	E	M	O	N	E	Z	I	V	B	
U	T	V	Z	U	D	U	D	V	V	R	V	K
L		P	R		V	O	K		Z			

Isa Álvarez Vispo

ELIKATZEA ETA JATEA GAUZA
BERA AL DIRA?



GINARRIZKO ERRENTA ZELAN BANATU?

“Baladren berdinentzako oinarritzko errenta aldarrikatzen dugu: diru-sarrera nahikoa, unibertsa, eta 80-20 banaketaren arabera: %80 norbanakoarentzat, eta gainerako %20 aegitura komun batentzat. Norberak zehaztu beharko du egitura komun hori zein den. Eta hortik aterako dira komunitateak behar dituen zerbitzuak. 80-20 horrek, denboraz, 20-80 bihurtu beharko luke. Utopikoa da, baina balio digu geure buruei galdetzeko: ‘Elikaduraren alorrean, 20-80 hori edukiko bagenu, nola antolatuko ginateke?’. Interesgarria da, eztabaidetan aipatzen baita proposamenetako batzuk jadanik zenbait lekutan egiten direla”.

“Ez da aintzat hartzen mundu guztiak elikatuta egoteko duen eskubidea”

Ez dago hemen Isa Álvarez Visporen curriculum merezi duen bezala azaltzeko lekurik. Sintesiaren mesedetan, esan dezagun agroekologian aditua, Ekologistak Martxan eta Baladre taldeetako kidea, eta *¿Qué comen las que malcomen?* (Zer jaten dute gaizki jaten dutenek?) liburuaren egileetako bat dela. Datu biografikoen zaleentzat: Suitzan jaio, Ermuan hazi, eta Lantarónen bizi da egun, “Arabako landa-eremu sakonean”. Ez kasualitatez, jakina.

UNAI BREA HODEI TORRES

Jendartea “birbaserritartu” behar dela diozu. Landatik hirirako migrazioak eragin zirenean (nahita), landa hustea zen helburua?

Ez, ez dut uste helburua hori zenik, eredu desarrollista ezartzea baizik. Eta horrek hiria jarri zuen erdigunean. Aldi berean, baserrian geratu nahi zutenak eredu horrekin bat egin behar zuten: moderno bilakatu, inbertsioak egin, Merkatuak –letra larri- begira zintzan. Gainera, garai batean, nekazari-giroa analfabetismoarekin lotu zen, eta abar. Helburua ez zen landa-eremua uztea, baina hustu egin zen. Ondorioz, laborari-laborariak oso gutxi dira Europan.

Eta zer da “laborari-laborari” bat?

Kar kar, tesia egiteko moduko gaia da hori; izan ere, egin dira horri buruzko tesiak. Laburtzearen, esango dut eskala txikiko laborantza dela, oraindik ere lurrarekiko harremana duena, lurrarekiko dugun mendekotasunaz jabetzen dena eta hura zaintzen duena. Hori da oinarria, nire ustez.

Eta balio jakin batzuk?

Bai, baina uste dut horren esanahia finkatu beharko dela berriz. Izan ere, gaur egun nostalgiaren ikuspegitik hitz egiten da landa-eremuaz, ez etorkizunari begira. Eta, bizimodu tradizionalari dagokionez, gauza asko birpentsatu beharko lirateke; patriarkatuak, esaterako, presentzia handia izan du nekazaritzan. Eredua baliagarria izateko, justizia soziala behar da. Nik, jendartea birbaserritartzeaz hitz egiten dudanean, landa-eremua birpopulatzeari kontrajartzen diot.

Alegia?

Orain birpopulatzeaz hitz egiten da, nola edo hala bete beharreko zerbaite hutsa balitz bezala. Eta nork elikatuko gaitu? Ez dut uste landa-eremura joaten diren guztiek aitzurrari heldu behar diotenik, baina jabetu behar dute nekazaritzarik gabe ez dagoela landa-eremurik. Haiek gabe, elikagairik ez. Produktu jangarriak edukiko ditugu beharbada, horixe



"Orain gutxi arte elikagai-bankuek beste kontinenteetarako egiten zituzten bilketak, eta orain honako".

saltzen baitigute banatzaile handiek. Benetako elikagairik ez, ordea.

Ez dira gauza bera, hortaz...

Ez. Produktu jangarriak kaltegabeak direla esaten digute, legezkoa dela supermerkatuetako apaletan egotea. Tira, ba. Baina elikagaiek elikatu egin behar dute. Etxeak produktu jangarriak beteta izatea normalizatu dugu; izan ere, orain super-elikagaiak balira bezala saltzen dizkigute elikagai arruntak besterik ez direnak. Eta kobratu ere, halatsu kobratzen dizkigute.

Agroekologiaren eredua mundu honetan gabiltzan milaka milioiak elikatzeko gai ez dela diote askok.

Munduan ez daukagu arazorik elikagai-produkzioari dagokionez, behar dugunaren %150 ekoizten dugu eta. Kontua da zer elikadura-eredu nahi dugun, benetako premiak erdigunean jarrita. Baina posible, izan, bada; gaur egun, oraindik, munduko elikagaien %70 nekazari txikiek ekoizten dute. Gainerako %30etik, %24 besterik ez da baliatzen jendeak jateko.

Eta bestea?

Pentsuetarako, bioerregaietarako... Egia esanda, maila globalean ez gaude enpresa-kate handien hain menpe. Baina hemen, Europan, buru-belarri sartuta gaude eredu horretan.

Hitz egin dezagun goseaz. Hitzak Afrikako irudi latzak ekarri ohi dizkigu gogora. Arazoak arazo, Europan ez ei dago gosez hiltzerik...

Hara, hemen gauza harrigarri bat gertatu da: orain dela urte gutxi arte, elikagai-bankuek beste kontinenteetarako egiten zituzten bilketak, eta orain, berriz, honako. Eta zeharo normalizatu dugu.

Hartara, nola definitzen da gosea? Neur daiteke?

Elikadura-segurtasuna definituta dago: kilokaloria-kopuru jakin bat eskura izatea. Hortik behera, ustez, gosea duzu. Baina aspalditik hitz egiten da, goseaz beste, elikadura txarraz. Izan ere, globalizazioaren ondorioz, herrialde askotan, pertsona batzuk gose izatetik txarto

elikatuta egotera igaro dira, eredu kapitalista sartu baitzitzairen, periferiako auzoetara McDonaldsak eta janari merkea eramanez. Beharbada orain jende gutxiago dago gosez, baina gehiago dau de txarto elikatuta, eta horren ondorioz gaixotuta.

Zer jaten dute txarto jaten dutenek?

Oro har, arin prestatzekoak, denboraren diktaduraren menpe baikaude denok. Eta zehazkiago, *¿Qué comen las que mal-comen?* landu genuenean, periferietako baztertuekin hitz egitean, ikusezinak direla esaten ziguten, soberakinak hiltzen zaizkiela. Elikagai-bankuetan, esaterako, nutrizioari dagokionez, hutsaren hurrengoa dago: jaki freskorik ez, azukrea barra-barra... Bestalde, zenbat eta baliabide gutxiago, janari ultraprozesatu gehiago, azkarrago prestatzen baitira, eta elkarren eskutik ibili ohi dira elikadura-pobrezia eta energia-pobrezia. Sabela bete daiteke, bai, baina hori ez da benetan elikatzea. Ez da aintzat hartzen mundu guztiak elikatuta egoteko duen eskubidea. ●

Portugal dut amets

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ukrainaren inbasioa dela eta ez dela, azkenaldian asko ari da agertzen notizietan Roman Abramovitx oligarka portugaldarra. Bai, ondo irakurri duzue: portugaldarra. Idatzi behar duzuna aurreikusten duen teklatuak ere “errusiarra” jartzen du “oligarka” hitzaren ostean, baina gauzak hain bihurtu dira konplikatuak, tekla bakoitza sakatzuz eskribitu beharrean gaudela orain, kazetarien nekeak hainbeste arindu dituen idazkera erdi-automatiko tipiko topikoa bazterrean utzita. Hauek lanak.

Egia esan, jo eta poto utzi nau notiziak: “Portugal ikertzen ari da Abramovitxi eman zion nazionalitatea” (*El País*, 2022ko martxoaren 13a). Antza denez, arbaso sefardiak zituen Chelsea futbol taldearen jabeak –ahoskatu “Tzelzi”, Xabier Azkargortak merezi du omenaldia–. Eta, antza denez, 2015. urtetik nazionalitatea ematen diete Manuel Lenak XV. mendean Portugalgo erresumatik bota zuen komunitate judu horretako kideen ondorengoei. Pieza galanta izan behar zuen Manuel horrek, portzierto: juduez gain musulmanak ere kanporatu zituen; eta bera errege zenean konkistatu zuen Portugalak Brasil; hori dena, Playmobil bat bezala orraztuta.

Duela bospasei mendeko zisko haiek eta oraingo ziskoak nahiko antzekoak dira, segun eta nondik begiratzen duzun. Diferentzia pasaporteetan dago: Abramovitxek, Portugalgoaz gain, badi-tu beste hiru –Errusia, Lituania eta Israel–, eta bueno, nazionalitateen kontu hori dirua daukazunean ze katxondeo klase den ikusita, Ruperrri lotzen naitzaio: “Hori suertea nonahikoak diren horiena, sasi guztien gainetikan dabil-tza hegan”. Zure herrialdeak beste batean muturra sartu eta egoera txungo jartzen dela? Beti esan ahalko duzu, Sa-



Roman Abramovitx oligarka (kontrakoa frogatzen den arte) portugaldarra.

rrionandia parafraseatuz, “Ni ez naiz hemengoa”.

Oraindik orain berriz elkarrekin rokanrrolin ikusi ditugun Pott Bandako bi kide atera dira jada artikulu hone-tan eta ez da debalde. Zeren, egia esan, inbidia ematen dit Abramovitxek. Eta Pott Bandarengatik da. Pott Bandakoen erruz, portugaldarra izan nahi dut. *Fas Fatum ene lagunek fadoa zein tristea den diote, Propostas para a definição do exílio*, badakizue zertaz ari naizen. Zuek ere sentitu duzue noizbait dena atzean utzi eta Portugalera ihes egiteko gogo erreprimitu ezinezko hori.

Portugalek dena dauka: Fernando Pessoa, Sophia de Mello, Amália Rodrigues, Eusébio eta gainontzeko guztia. Portugalgo milikoak, fusiletan krabelinak landatuta, *Grândola, Vila Morena* kantari. Zure penak ez dira patetikoak Portugalen, *saudade*-a dira; edo *desas-*

sossego-a. Eta haietaz hitz egiteak ez zaitu pringatu bat bihurtzen. Are gehia-gu: kultura da.

Portugalek, gainera, badu abantaila handi bat: Portugal dela eta ez, dema-gun, Espainia. Edo Frantzia. Edo Alema-nia. Edo AEB. Edo Errusia. Edo Txina. Edo bere buruari inportantzia ematen dion beste edozein herrialde. Alegia, disimuluan pasatzen daki. Munduari ez zaio asko inporta Portugal eta, kontra-prestazio gisa, nik uste dut Portugali ez zaiola askorik inporta mundua.

Bale, ados, benetako Portugal ez da hori. Edo ez da hori bakarrik. Baina Javier Ortizek Jamaikari buruz zioena parafraseatuz, nire Portugalek, amesten dudan Portugal honek, balio dit kime-ra delako, hemengoa ez den espazioa okupatzen duelako, laguntzen didalako imajinatzen beste batzuk izan gintez-keela. Eta horren premia larria dugu. ●

KIT DIGITALA

12.000 euro arteko diru-laguntza zure enpresa digitalizatzeko

Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU plangintzatik, Kit Digital programa jarri da abian. Programa horren bidez, guztira 3.000 milioi euro bideratuko dira **2.000 eta 12.000 euro** arteko bonu digitalen bidez enpresa txiki, ertain eta autonomoei zerbitzu digitalak kontratatzeko:



WEBGUNEA ETA
PRESENTZIA
INTERNETEN



MERKATARITZA
ELEKTRONIKOA




SARE SOZIALEN
KUDEAKETA



BULEGO BIRTUALEKO
TRESNA ETA
ZERBITZUAK

GEHIAGO JAKITERIK NAHI?

Gurekin harremanetan jar zaitez 943 376 716 telefonora deituz edo kaixo@iametza.eus helbidera posta elektroniko bat bidaliz.





22.korrika

HITZEKIN

22.korrika

HITZEKIN

22.korrika

HITZEKIN

korrika.eus



Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

MATERIALA
HEMEN
SALGAI:

Korrika dendetan,
AEKren euskaltegietan eta
www.korrika.eus atarian.

